



ARGIA

JONE GOIRIZELAIA:
"UNE EGOKIA LITZATEKE
AHOTSAK MUGIMENDUA
BERRABIAZTEKO"

LARRUN:
EUSKARAREN GALERA
NAFARROA BEHEREAN

ANDONI CANELA
ARGAZKIEN BIDEZ
ANIMALIEN ALDE ARI DEN
ABENTURAZALEA

BABESLEA ERASOTZAILE

**ZAZPI HAURRETIK BATI
SEXU ERASOAK EGIN DIZKIOTE
ETXEKO GIROAN**



2017 Ilargiaren Egutegia

JAKOBA
ERREKONDOREN
ESKUTIK
BARATZEA,
FRUITU ARBOLAK,
JARDINA ETA BASOA



PELLO ZABALAK
AUKERATUTAKO
ESAERAK



Aurten ere ILARGIAREN EGUTEGI sonatua argitaratzera doa

Nekazaritza ekologikoa eta ahalik eta naturalena sustatzeko tresna paregabea

Pello Zabalak aukeratutako
esaera bat hilabetero

Jakoba Errekondoren eskutik
hilabeteroko lanak: baratzean, fruitu
arboletan, jardinean eta basoan

Hilabetero ilgora eta ilbehera faseak

Ilargi betea eta berria

Egutegi biodinamikoa,
eguneroko fasea

Nekazaritza ekologikoaren
inguruko osagaiak

Argazki erakargarriak, aurten garai
bateko iragarki xelebreekin osatuta



4 €
+
bidalketa
gastuak

Eskaerak:

☎ 943 371 545

www.argia.eus/denda

denda@argia.eus

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Hor dena gailu
- 10 Net Hurbil: Olibarenak egin du Palestinako Beit Jalan

IRITZIAK

- 17 Estitxu Garai Artetxe
- 18 Fermin Erbiti
- 19 Eneko Olasagasti
- Oihana Etxebarrieta



Jone Goirizelaiaekin elkarrizketa publikoa egin genuen azaroaren 11n, Gasteizko Oihanederren (ARGAZKIA: DANI BLANCO)

- 38 BIZI BARATZEA
- 40 ARGIA KOMUNITATEA
- 42 DENBORAREN MAKINA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENeko EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGi-KONTRA: WIDIA LARIVIERE
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 12 | Andoni Canela, giza jarduerak animalia basatiengan zer ondorio hilgarri duen erakusten / Reyes Ilintxeta
- 20 | Umeen aurkako indarkeria: Familia, isiltasun gotorleku / Eider Madina Berasategi, Jon Torner Zabala
- 26 | Erraustegia egin nahi duen GHK SAU-k kiebra egin du / Estitxu Eizagirre Kerejeta
- 30 | Jone Goirizelaia: "Iñigo Cabacasen familiak ikusi du instrukzioa ez dela inpartziala izan" / Mikel Asurmendi
- 34 | Durangoko Azoka: ARGIAren mahaian dugu hitzordua / Estitxu Eizagirre Kerejeta
- 36 | Gasteizko gurasoak eta euskararen transmisioa: Etxeko altxorra eskolan galduko ote? / Miel A. Elustondo
- 44 | Marga Iñiguez: "Sormena zerbait biologikoa da" / Mikel Garcia Idiakez
- 47 | Arte iruzkina: Bixente Ameztoui / Xabier Gantzarain

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE
ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagañña Taldeko parteidea.
Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.
Erredakzioa: Ainhoa Ortega, Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Iosu Alberdi, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.
Produktzioa: Antza S.A.L.
Harpidetza: Iraitz Agirre.
Salmenta: Idoia Arregi, Isabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Sorluze, Bego Zuza.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Lioarte, Marijo Aiertza.
Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.
Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.
Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.
Interneten: www.argia.eus.
Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.
Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

HARPIDETZA:

Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean.
Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.



PANORAMA

Nafarroako kolore guztiak faxismoaren kontra

Ez da egunero ikusten larunbatean Iruñean krabelin gorriak eskuan, 1936ko gerran hildakoen omenez, milaka lagunek erakutsitako batasuna. Oroimen historikoa lantzen duten talde guztiak, herri mugimenduko eragile andana, sindikatu nagusi guztiak, alderdi politikoen gehiengoa... salbu eta, ohi gisan, UPN eta PP. 1936ko estatu kolpea eta ondorengo fusilamenduak, bortxaketak, umiliazioak, hizkuntza eta kultur ordezkapena eta 40 urteko erregimen faxistak eragindako biktimen erreparazioa eta memoria gaur egun ere ukatzen dituzten bakardadea agerian uztea lortu du manifestazioak; besteak beste, Mola eta Sanjurjo jeneral faxisten desobiratzeen bitartez, "Trantsizioak" lurperatu nahi izan ez zuen iruditeria frankistari Nafarroan babes publiko oro ukatzearekin batera.

Argazkia: Aritz Loiola · Testua: Axier Lopez



FAXIS... #gureinhötsa

t “Zaila da bakeaz, berradiskidetasunaz, sentsibiltate ugariet hitz egitea, Euskal Herria herri okupatua denean. Gaur bake prozesuaz hitz egingo dute... #Altsasu”

@aurrerabolie1

t “Hobe bai Altsasuko liskarra ikertzeko erabiltzen ari diren hamarren bat erabiliko balitz orain gutxi komisarian hildako Elhadji Ndiayeren kasua ikertzeko”


@begiakirekiz

t “‘Ezker espainiarraren’ isiltasun orokortuak baieztatu dit titiriteroak bi zirela, baina txotxongiloak ugari zaretela. #Altsasu”

@erreharria

t “Lagun kazetari espainiarrak, Altsasuko gezurra irentsiko duzue ezer egin gabe?”

@hasier



DS52016

Euskal presoen lanak zentsuratu ditu Donostia 2016k

Argia

@argia

Espetxeetan eta zentro psikiatrikoetan dauden pertsonen egindako lanak biltzen dituen erakusketa batetik erretiratu ditu Donostia 2016k euskal presoek zegozkienak: “Biktimei min eman diezaiekegu”, izan da argudioa.

Zentsura erabili du antolakuntzak *Lekurik gabe, denborarik gabe. Giltzapekoak* erakusketan, eta hala onartu du gainera. Artelan bildumaren aurkezpenean Pablo Marte komisarioak berak salatu du gertaturikoa, Donostia 2016ko arduradunak bertan zeudela. Pablo Berastegi hiriburutzaren zuzendariak eta Denis Itxaso Gipuzkoako Kultura diputatuak onartu dute euskal preso politikoek egindako zenbait obra kendu

egin dituztela, ez lana bera iraingarria edo polemikoa delako, egilea zein den kontuan hartuta “biktimei minik ez egiteko” baizik.

Erretiratutako marrazki, koadro eta ikusentzunezkoen ordez paper zati txuri bat jarri dute, hutsunea “ikusgarri” egiteko.

Erreakzio andana

Donostia 2016ren erabakiak kritika eta erreakzio andana ekarri du eta sare sozialak dira horren erakusgarri: “Galdera bat: Zentsuratu ez dituzten lanen egileek ez ote dute biktimarik?” (@tiutaka); “Francoren bilobari gutuna antzerkilana zentsuratu zuten. Presoen lanak zentsuratu dituzte. Elkarbizitza? #giltzapekoak eta #memoria arriskutsu” (@iPatxi); “Zentsura ez da bide zintzoena bakearen hiria eraikitzeko. Zentsurarekin ez dakit zer hiri egin nahi den” (@urtziurkizu)...

“Espainiak ez du nahi bakerik”

JOSEBA SARRIONANDIA, IDAZLEA

Etxepare institutua medio La Habanako unibertsitatean lanean hasiko dela-eta, zurrumbiloaren erdian da idazlea. “Nire liburuak arreta apur batekin irakurtzen dituenak ohartuko da non ibili naizen (...) Arrazoi politiko konkretu batengatik ez naiz itzuli Euskal Herrira. Espero dut berandu baino goizago konponduko dela”. Bake prozesua beharrezkoa zela ere badio, “eta hogeitaz lehenago egin izan balitz hobe, nire ustez, desgrazia pila bat izango genituen gutxiago (...) Baina Espainiak ez du nahi bakerik, eta hanka bakarrarekin ibiltzea bezalakoa izango da orduan bake prozesua (...) Duela bost urte ETaren aitzakia ez duela eta berdin segitzen du Espainiako Estatuak”. **ZUZEU (2016-11-20)**



Helepa!

MORDORREK eman erakundea
GURE BURUAREN ONERAKO BALIATU
NAHI DUTENEK ez dute TOLKIEN
IRAKURRI HAIN SEGUR ere...



ez dea hala, ene
ALT XORLARITZA?

CK



ELA

Errepideetako greba konpondu gabe iritsi da negua Gipuzkoara

Urko Apaolaza Avila

@urkoapaolaza

Azaroaren 15ean jarri du indarrean neguko bidezaintza plana Gipuzkoako Aldundiak. Elurteei aurre egiteko langile kopurua erdira jaitsi du foru erakundeak eta ELA sindikatuak azalpenak eskatu dizkio.

Zortzi hilabete daramate greban Gipuzkoako errepideetan mantentze lanak egiten dituzten enpresetako langileek. Azpikontratazioaren ondorioz lanaldi luzeak eta izoztutako soldatak jasaten dituztela diote, baita segurtasun gabeziak ere. Besteak beste, neguko bidezaintza planean irregulartasunak salatu izan dituzte.

Aintzane Oiarbide Azpiegituretako diputatuaren esanetan, grebak ez du "inolako eraginik" izango neguko bidezaintza planean, gutxieneko zerbitzuen barruan sartzen baita plana "bere osotasunean". Bestalde, elurra aurre egiteko gatz biltegiak eta 80 kamioi prest dituztela azaldu zuen prentsaurrean diputatuak, eta "baliabideak optimizatu" dituztela gaineratu zuen.

322 langileren ordez, 180

ELAk zehaztaper handiagoa eskatu dio Aldundiari, planean parte hartu ohi duten 322 langileen ordez 180 baino ez baititu aurreikusi: "Giza baliabideak erdira jaitsi dira". Sindikatuak "eszeptizismoa" azaldu du foru erakundearen interesekiko: "Ezinezkoa da erabiltzaileen segurtasuna bermatu ahal izatea mantenu zerbitzu horietaz arduratzen diren langileen segurtasuna bermatzen ez bada".

Aldundiari eta mantentze lanak egiten dituzten enpresetako zuzendari-tzei Lan Harremanen Kontseiluan elkartzeko deia luzatu die sindikatuak, planari buruzko informazio gehiago izateko asmoz: "Ez dugu inoren bizia arriskuan jar dezakeen murrizketarik onartuko".

ELAren ustez, langile eta enpresen arteko gatazkan Aldundiak zeresan eta ardura handia dauka, berak azpikontrataturiko zerbitzu publikoa betetzen ari baitira. Oiarbidek baina, ez du hala uste: "Hasieratik nahi izan dugu gatazka azkar amaitzea, baina Diputazio bezala egin behar dugun gauza bakarra da bide segurtasuna bermatzea".

EKONOMIAREN TALAIAN

Pobrezia energetikoak ere hil egiten du



Juan Mari Arregi

Indarrean dagoen kapitalismoak, orain neoliberalismoa deitzen dioten horrek, hil egiten du. Jendartean etengabe ari da hori erakusten. Lan prekarietateak hil egiten du, istripu eta suizidioak eraginez, amiantoak ere bai, beste gaixotasun profesional batzuek bezala, baita pobrezia onduz egiten diren etxegabeteek ere, jakina. Joan den astean Katalunian adineko emakume bat hil zen, kandelak erabiltzeagatik bere etxeak su hartu ondoren; hala, garbi ikusi da pobrezia energetikoak ere hil egiten duela. Eredu sozioekonomikoan funtsezko aldaketak egiten ez badira, heriotzak bata bestearen atzetik etorriko dira, sistema hau bera baita kriminala.

Reuseko 81 urteko amonak kandelekin argitzen zuen etxea, argi-indarra moztu ziotelako. Heriotza horrek aurpegia jarri die Espainiako Estatuan pobrezia energetikoaren drama sufritzen duten lau milioi lagunei. Bazterkeria sozialaren eta desorekaren isla laugarria da. Pobrezia hori sufritzen dutenek gosea ere pasatzen dute, baita hipotekak edo ustekabeko gastuak ordaintzeko ezintasuna ere, askotan etxegabetea dakarrena. Euskaldunok ez gara salbuespena. EAEn, adibidez, 70.000 etxetan dute pobrezia energetikoa, hau da, familien %7,7k.

Egoera larri horren aurrean administrazioak neurriak hartu behar ditu. Eusko Legebiltzarrean zain dago pobrezia energetikoaren kontrako planari buruzko eztabaida. Plana ez da eraginkorra izango ez badu arazoaren muinera jotzen: elektrizitate enpresek badute erantzukizun handia, azkenaldiko prezio igoerak baitira gakoetako bat, baina batez ere, azpimarra jarri behar da eredu sozioekonomikoaren aldaketan, oraingo ereduak hil egiten baitu. Eta hor, erantzukizuna denona da.



@AKEROKERRA

Deialdi masiboa Altsasuko atxiloketen aurka

ALTSASU. Euskal Herrian egin den prentsurrekorik jendetsuenetakoa egin dute Altsasun azaroaren 19an, hilaren 26rako Udalak, atxilotuen senideek eta azken asteetako egoerari erantzuteko sortutako *Altsasuarra eta harro* plataformak deitutako manifestazio deia babestuz. 13:00etan aterako da Nettotik eta isila izango da. Altsasuko alkate Javier Ollok desproporzionatutzat jo du urriaren 15eko gertaerak terrorismo gisa epaitzea, eta ikerketa Iruñeko epaitegietara lekualdatzeko eskatu du.

Aurrerapausorik gabe joan da klimaren gailurra

Unai Brea

@unaibrea

Marrakexeko COP22 gailurrean iaz Parisen ezarritako helburuak betetzeko bitartekoak zehazten hasi behar zuten munduko gobernuek, baina iaz agertutako borondatea berrestea izan da emandako urrats esanguratsu bakarra. Aurrerapausorik ez, beraz.

Araudia 2018rako

Larrialdi klimatikoan gaudela ia denok onartu arren, gailurrean adostu den dokumentua ez da adierazpen politikoa baino askoz gehiago. Parisko Hitzarmena betearazteko araudia 2018rako prest izatea erabaki da, ez lehenago.

Finantzazioa zehazteke

Klima aldaketari aurre egiteko behar den finantzazioa ziurtatu gabe geratu da COP22n. Gutxienez 100.000 milioi dolar beharko dira urtero 2020tik aurrera, eta kopuru hori ez dago inola ere bermatuta.

Justizia klimatikoa

Marrakexen egindako gailur alternatiboak justizia klimatikoaren aldeko adierazpena kaleratu du. Energia sistemak errotik aldatzearen alde eta foro ofizialetan proposatzen diren "irtenbide faltsuen" aurka azaldu dira.

ESKOLA
JAZARPENA



250

gaztek deitu dute aurtun adin txikikoak laguntzeko Zeuk Esan telefonora EAEn, bullyingari lotutako gaiez laguntza eskatzeko; alegia, guztira jasotako deien %42.

%80

Deitu duten gehienek 12 eta 15 urte artean dituzte eta bullyingari lotutako deietan, 10etik 8 mugikor bidez jazarpena jasan duten neskak dira.



PRESO BAT HIL DA

Preso batek bere buruaz beste egin du Baionako kartzelan, hirugarrena sei hilabetean. Espetxeko administrazioaren gardentasun eza eta kartzelako gehiegizko okupazioa kritikatu du Frantziako Abokatuen Sindikatuak.



ERREBALIDAK JOMUGAN

LOMCEren errebalidak bertan behera uzteko lege proposamena aurkeztu du PSOEk Espainiako Kongresuan. Eta oposizioaren botoei esker, legearen ezartze egutegia geldiarazteko bideari ekin dio.



BNP PARIBAS OKUPATU DUTE

Bizi! mugimenduko 31 militante BNP Paribas-en banketxe bat okupatu dute Biarritzen. Banku horren zerga-ihesa salatu eta mugimenduko kide den Jon Palaisein elkartzatuna agertu nahi izan dute. Urtarrilean epaituko dute Palais, banku horren aurkako protesta batzuetan parte hartzeagatik.

Jesus jaio eta 2.016 urtera azken oliba-uzta tristeia Palestinako Beit Jalan



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Herodesen garaian erromatarrek olibondoak ekarriz geroztik, hogei mendez urteko sasoi alaiena izan ohi da Palestinako herri askotan urri-azarokoa, oliben uztaroa. Aurtengoa biziki tristeia suertatu da Betleem ondoko Beit Jalan: Israelgo armadak herriko soro oparoenak okupaturik bere defentsako harresia eraikitzeko, azken oliba bilketa izango dutela sumatzen dute palestinarrek. Ez nazioarteko irudiak eta ez lekuko apez katolikoen eukaristiek, deusek ez ditu gerarazten kolono juduak.

“Palestinarrek negarrez biltzen dute Cremisan ibarreko azken oliba uztza”, idatzi du Sheren Khalelek *Aljazeera*an. Israelek apartheid-harresia luzatzeko betirako urrundu nahi ditu Ekialde Hurbileko oliorik mitikoenetakoa ematen duten soroak bere betiko jabe palestinarrengandik.

Kazetariak ikusi duenagatik, urte osoan kasik zaindu gabe egon diren olibondoak kimatu gabe eta aspaldi-ko itxura itsusienaz daude. 300 hektarea bete arbola, azeitunarik ederrenak eman ohi dituztenak, ezin izan dituzte zaindu beren jabeek, armada juduak ezarritako oztupoak direla medio.

Ricardo Jaweejatek, belaunaldi askoz olibondootatik bizi izan den familia-koak, esan du: “Ez naiz etorri urte osoan zehar, begira kimatu gabeko altsuma horiei, ikus karrikatik ekarrita utzi dituzten zakarrok. Israeldarrek lurrok berenganatu behar zituztela esan zutenetik ahalegindu naiz ez etortzen, arriskutsua da hemendik ibiltzea”.

*Aljazeera*ko kazetaria horren lekuko. Erreportajea egiten ari zela, bidean zeharkatu dute *jeep* militar judu bat. “Ezin dugu ezer horien kontra. Etorri eta nahi dutena egin edo harrapatu dezakete”, diotso Jaweejatek.

Gauza da Israel eta Palestinaren arteko itunak ezartzen dituen hiru segurtasun eremuetatik, Beit Jala A zonan dagoela, osorik palestinarren kontrolpean. Hori teorian da, ordean. Eremuaren erdian dago Gilo izeneko kolonia

judu ilegala, eta hura defenditzeko Israelek basea ezarri du muino batean. Patruilen joan-etorriak eten gabeak dira, osorik Israelek kudeatutako C eremua bailitza.

Beit Jala kokaturik dago Cremisan haranean, Jerusalemetik Betleemeraingo luzatzen den ibar oparoan. Bere baitan hartzen du Cremisan santutegi ospetsua, ardo eta olio ezagunen ekoizlea, gaur apez salestarren jabegoa dena. Betleem inguruotan asko kristauak baitira. Palestina osoan ere 1948an %18 ziren hemen kristauak eta gaur %2 izatera murriztu dira, asko aipatu ez den exodoaren ostean.

Tel Aviveko gobernu palestinarra Cremisaneko ortuetatik kanporatzeko operazioa hasita, *Palestine Monitor* webguneak egin dio hilabeteotan jarraitapena palestinarren kontrako hamaikagarren zigorrari. Joan den abuztuaren 17an iritsi ziren militarrek beren bulldozerrekin eta hiru astetako lanaren ostean Beit Jalako 58 familiaren bizibidea desegin zuten, fruitu arbolak erauzi eta lurrazala hondeatuz. Ez baserriarrek, ez kazetari edo abokatuek ikusi ahal izan dituzte egindako kalteak aste luzez.

Ehunka urtez arbasoak alorrotan nekazari eduki dituen Issa Elshatleh esan zuen: “Duela 2.000 urte Jesus olibondoon itzalean eseri zen! Gure lurra da, gure etorkizuna, gure historia, gure memoria. Ikusten ditudanean arbolak ebaikitzen eta errotik ateratzen, nire atalak erauziko balizkidate bezala egiten di-



date min. Alde egiteko gogoia sentitzen dut, daukadan guztia horietan dagoelako. Baina ez dakit zer egingo duten gure haurrek”.

Bederatzi urte eman dituzte Israelgo gobernuarekin auzitan sartuta Beit Jalako baserriarrek, segurtasun aitzakian Zisjordaniako herri palestinarrek juduen bizilekuetatik, eta bide batez lurrik emankorrenetatik, bereizteko eraikitzen duten hesi erraldoiak ez zitzaizkan zeharkatu Cremisan haraneko baratzeak. Apirilean Auzitegi Gorenak arrazioa eman zien arren, gobernuak helegitea aurkeztu eta uztailan Gorenak militarrei baimena eman zien berei zerizkien lekutik urratzeko harresia.

Segurtasun aitzakian lur-lapurreta

Jonathan Cook Nazareth bizi den kazetari ingelesak idatzia duenez, urri eta azaroko dozen erdi astez Palestinako ibar eta muinoak azeitunak biltzera etorritako familiaz betetzen dira, gazte eta zahar olibondoen oinetan beren arbasoen oso antzeko bizimodua eginez. Zisjordaniak dauzkan 10 milioi inguru olibondoen inguruan familia eta komunitateko elkartasun bat ospatzen da, mila urteotan kasik aldatu ez den komunio bat naturarekin eta bere oparotasunarekin. Israelen okupazioaz geroztik “uzta bilakatu da palestinarren azken erresistentzia gisako zerbait: gizabanakoak uko egiten dio alde egiteari, taldeak uko egiten dio garbiketa etnikoari”.



HLCEF Lur Santuko Fundazio Kristau Ekonomikoak bere blogean jarritako argazkian, Israelgo armadako militarrek Cremisan haranean mila urte baino zaharragoko olibondoak erauzten joan den udan. Palestinako agintari eta herritarren protestak gora behera, Betleem inguruko haran aberatseko soroak eta komentu kristauak Israelen eremuan geratuko dira, betonezko harresiak pasabidea eragotziko dielarik lurren jabe diren nekazari palestinarrei. "Duela 2.000 urte Jesus olibondoan itzalean eseri zen", esan die kazetariei batek.

Aldi berean, garrantzia ekonomiko itzela ere badu, 100.000 familiaren eguneroko bizimodua baitago arbola horiei loturik. Olioak pisu handia du Palestinaren Barne Produktu Gordinaren %13 osatzen duen nekazaritzan.

Baina 1967an Zisjordania, Jerusalemen ekialdea eta Gaza bereganatu ostean, Israeliek ekin zion palestinarren baratze eta olibadiak konfiskatu, estatuen lur bihurtu, erauzi, batzuk nazio parke bilakatu eta horietan kolono juduen herri berriak eraikitzeari. Errotik atera eta erretako milaka olibondoak izan daitezke garbiketa etnikoaren ikur.

Beit Jalak ekoizten ditu Palestinako azeituna onenak, diote harro bertakoek, "limoi lurrina duen olio" ematen omen dutenak. "Olio" ikusiko duzu egunero hemengo otordu guztietan, gosari, bazkari eta afari. Horregatik sekulako

eragina dauka Beit Jalako jendeen bizimoduetan", esan du herriko parrokoa den Aktham Hijazim apaiz katolikoak. Israeldarren planen kontra borrokatu dira hasieratik apaiz eta moja kristauak, Internetez erraz aurki daitezke horien argazkiak meza ematen edo otoitzean buldozer eta patruila armatuen aurrean protesta baketsuan olibadietan.

Uztaileko epaian Israelgo Gorenak ebatzi zuen arren apartheidaren harresia pittin bat aldentzea komentu eta elizetatik, Aktham apaizak segitzen du protestak babesten: "Bakoitzak bere aldetik jota ez dugu deus irabaziko, ez santutegiek eta ez jendeak, zeren eta haiek lurra berdin urratzen segitzen baitute. Gure garaipenak ez du ezer balio ez baditugu jendea eta lurra babesten".

Israeliek ez du atzera egingo, bere lurraldea palestinarren bizkar zabaltze-

ko estrategia zorrotz kalkulatu dago eta. Beit Jalako kasuan, harresiak lurrik oparoenak beren jabe legitimoek kendu eta hesiaz bestalde utziko ditu hasieran ilegalak eta denborak aurrera jo ahala behin betiko bihurtzen diren Gilo bezalako kolonien esku.

Beit Jalako olio kooperatiban ere triste daude, aurtengo uzta txarra izaten ari baldin bada ondorengo urteetarako ezin dutelako askoz hobea espero. Azeitunak bertako errotan galkatzeko zain dauden nekazarien ilaran aurten gutxi dira Cremisan ibarretik etorriak. Ricardo Jaweejat etsipenez mintzatu zaio kazetariari: noizbait bere familia Cremisan ibarrera itzuliko den itxaropena eduki nahiko luke, baina aitortzen du sekula ez duela ikusi lapurtutako lurra berriro jabe palestinarrei itzultzen. ■



zuri begira



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Andoni Canela, naturaren argazkilaria

«Giza jarduerak animalia basatiengan zer ondorio hilgarri dituen erakutsi nahi dut»

El viaje de Unai dokumentala da Andoni Canela argazkilaria azken lana. Hamabost hilabetez familia osoa ibili da munduan barrena galzorian dauden zazpi animalia bileren bila. Ia guztiok txikitzen egin nahiko genukeen bidaia da edo gure seme-alabekin egin nahiko genukeena. Film honetan, animaliek aske bizitzeko duten eskubidea ilusioz aldarrikatzen du Andoniren semeak, Unai narratzaile txikiak.



Reyes Ilintxeta

@ReyesIlintxeta

ARGAZKIAK: ANDONI CANELAK UTZIAK

Noiztik datorkizu animaliei argazkiak ateratzeko zaletasuna?

Tuterakoa naiz, hangoa dut aita, eta ama Bilbokoa. Tuteran bizi izan nintzen unibertsitatean joan arte. Bardean asko ibiltzen nintzen. 13-14 urterekin paisaien eta animalien bila ateratzen nintzen Ebroko ertzean eta hango mendietan. 16 urterekin hasi nintzen argazkiak egiten.

Nola iritsi zinen naturaren argazkilari profesionala izatera?

Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan ikasi nuen kazetaritza, baina oso gutxi joaten nintzen eskolara. Hirugarren mailan hasi nintzen hainbat aldizkaritan eta egunkaritan nire lanak argitaratzen. Gerora liburuak eta erakusketak etorri ziren.

Hortik bizi daiteke?

Duela lau zapabost urte arte nahiko ongi bizi zintezkeen, baina azkenaldi honetan, krisiaren eraginez, jende askok utzi behar izan dio horretan lan egiteari. Nik, zorionez, badut aski lan. Nire egiteko modua nahiko berezia da, epe luzearako proiektuetan egiten dudalako lan. Argi-

tara eman ditudan liburuetakoa batzuetan bizpahiru urte aritu izan naiz gelditu gabe. Artikoaren inguruko erakusketak prestatzeko hainbat urte behar izan nituen. Normalean egiten ditudan lan gehienak enkarguzkoak dira edo alde aurretik jasotzailea ziurtatua dutenak.

Beti ibili zara munduan barrena?

Karrera bitartean lagun batzuek kiosko-liburudenda ireki genuen Kazetaritza fakultatean, eta ikasturtea amaitu bezain laster alde egiten nuen nire kamera eta kanpin-dendarekin. Bospasei urtez uda osoa eman nuen Afrikan. Hasieran idatzi egiten nuen, baina poliki-poliki argazkia joan zen lehentasuna hartzen. Lehen unetik gizakiak ingurumenarekin duen harremanaren inguruko erreportajeak egin izan ditut. Lehena, adibidez, erronkariarren ardi bidea izan zen, *La Vanguardia* argitaratu zidan.

Animaliak beti protagonista?

Gero eta gehiago joan nintzen animalien munduan hurbiltzen, baina oinarrian beti dago gizakiaren eta animalien arteko harremana. Azken bidaia honetan, adibidez, zein animalia dauden jaza-

rriak, masakratuak eta desagertzeko arriskuan begiratzea eta horietarik kontinente bakoitzeko bana aukeratzea izan da abiapuntua. Gizakia ez da ikusten nire argazkietan, baina animalien gain duen eragina mezuaren mamia da. Animalien biologia edo izaera azaldu baino gehiago, nik erakutsi nahi dudana da zer ondorio hilgarri dituen giza jarduerak animalia basatiengan. Hortaz, naturaren inguruko dokumentalak dira nireak? Bai, baina hori baino gehiago ere bai.

Planeta suntsitzen ari gara?

Garapen bidean dauden herrialdeetan natura elkortzen, agortzen ari dira. Besteetan, gutxi gorabehera, babes neurriak ari gara ezartzen eta hainbat kasutan eraginkorrak direla esan daiteke. Hirugarren munduan lehen munduaren multinazionalak ari dira baliabide naturalak basaki ustiatzen. Hau gaur egungo kolonialismoa da. Oihan tropikalak eta beste ekosistema asko ari dira desagertzeko zuzenengatik edo klimaren aldaketaren ondorioz. Estatistikek argi ikusten da nola espezie batzuk ari diren desagertzeko edo gainbehera

A portrait of Andoni Canela Urizar, a man with shoulder-length wavy brown hair and a light beard, looking directly at the camera with a slight smile. He is wearing a dark grey long-sleeved shirt. The background is a warm, out-of-focus bokeh of lights, suggesting an indoor setting with many small light sources.

Andoni Canela Urizar

1969, Tuterá

Naturaren argazkilaria. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan kazetaritzan lizentziaduna eta Londresko London College of Printing-en argazkilaritzan diplomaduna. Hamabost liburu eman ditu argitara, haien artean: *Durmiendo con lobos* eta *El Águila Imperial Ibérica*. Bere lanak *National Geographic*, *Geo*, *BBC Wildlife*, *Newsweek* eta *Sunday Times* hedabideetan argitaratzen ditu. Duela hiru urte bere bikotekide Maritxell Margarit idazlearekin eta haien bi seme-alabekin hamabost hilabeteko bidaia egin zuten munduan barrena. Bidaia horretatik *La llamada del puma* liburua eta *El viaje de Unai* dokumentala sortu dira.

ARGAZKIA: DANI BLANCO



garbian. Hemen lortu badaiteke lurzoru baten birkalifikazioa modu “legezkoan”, garapen bidean dauden herrialdeetan zer esanik ez. Han borondate politikoa eta behar den guztia oso erraz erosten dira negoziok egiteko. Orain palma olioarengatik Asiako oiha tropikaletan gertatzen ari dena ikaragarria da.

Nola sortu zen hamabost hilabeteko bidaiaren ideia?

Nire bidaietan normalean bakarrik joan izan naiz eta etapa motzetan. Hau erabat desberdina izan da. Oraingoan familia osoa joan gara eta dena jarraian egin dugu. Hasieran, bidaiaren helburua hainbat aldizkaritarako argazki erreportajeak egitea zen. Hogeit bat egin nituen. Gerora iritsi zen liburua egiteko aukera, *La llamada del puma*, 272 orrialde, 150 argazki, Meritxellen testuak eta Unairen marrazkiak. Odile Rodríguez de la Fuentek egin zuen hitzaurrea. Azkena *El viaje de Unai* izan da, hilabete horietako kronika haurrak bere hitzetan kontatua.

Hori dena *Looking for the Wild* ize-neko proiektuan kokatzen da. Egitasmoak hainbat fundazio eta entitatearen sostengua izan du, besteak beste, Félix Rodríguez de la Fuente Fundazioarena, eta elkarlanean ari gara P.A.U. Education argitaletxearekin familia eta eskolei zuzendutako *Learning in the Wild* heziketa proiektuan. Harrituta gelditzen ari naiz jendearen erreakzioarekin. Ikusleak hunkitu egiten dira izugarri. Bukaerako mezua ongi iristen ari zaio ikusleari, baina beste asko ere bai.

Utzi haurrei bere kabuz

“Naturarekiko kontaktu hutsak baliabide pila ematen die haurrei. Gauzak haien kabuz aurkitzen doaz, eta min pixka bat hartzen badute ez da ezer gertatzen. Asunek azkura ematen dute eta animaliek hozka egiten dute, hori horrela da, eta ikasi egin behar da. Gaur egun gehiegi babesten ditugu haurrak eta asko ari gara galtzen”.

Semearen ilusioa

“Unairen begirada ez da dokumentalistarena, ikusitakoa aldatu nahi duen pertsonarena baizik”.

Haurra hizketan

“Bidaiaren ardatza galzorian dauden zazpi animalia-espezie bilatzea zen eta azaltzea gizakien ekintzen ondorioz daudela egoera horretan. Modu sinple eta zuzenean nahi genuen adierazi, eta zalantzarik gabe, errazago lortzen da hitz egiten dizuna haurra bada”.

Zergatik hautatu dituzue zazpi animalia horiek?

Hauek aukeratu ditut: otsoak Kantabriako Europako mendietan, Namibiako basamortuko elefanteak, Patagoniako pumak, Ipar Amerikako bisonteak, Antartikako Papua pinguinoak, Thailandiako kalaoak eta Australiako krokodiloak.

Gizakiek animalia horiek sarraskitzeko dituzten arrazoiak erakutsi nahi genituen. Ipar Amerikako bisontea adibidez. Ba omen ziren 40 edo 50 milioi ale, zuriak iritsi arte. Ia guztiak akabatu zituzten, Yellowstone parkean 50 aleko talde txiki bat utzi arte. Zergatik egin zuten halako holokaustoa? Bertako indiarrek akabatzeke, larruekin negoziatzeko, munizioa oso merkea zelako... Basamortuko elefanteak hiltzen dituzte boliarengatik, baina mesede politikoen truke. Thailandiako kalaoak hiltzen ari dira haien lumak eta mokoak saltzeko, baina gehienbat oiha tropikalak suntsitzen ari direlako ari dira desagertzen. Olio ateratzeko palma plantazio ikaragarriak jartzen ari dira neurririk gabe. Bestalde, Antartikako pinguinoak klima aldaketaren ondorioz zuzenean ari dira pairatzen. Australian berriz, duela gutxira arte krokodiloak hiltzen zituzten pertsonentzat arriskutsuak direlako. Galzorian egon zen toki askotan eta orain babestuta dago. Hori da herrialde garatu eta garapen bidean dauden arteko alde nagusia. Babes neurriek, gutxi gorabehera, funtzionatzen dute. Katamotza, eguzki-arranoa... galtzear egon dira Iberiar Penintsulan. Egia da otsoa mehatxua dela abereentzat, bai-



Argazkietan, bidaia luzea egin duten laurak, ama, aita, Unai eta Amaia seme-alabak.



na sarraskia ezin daiteke izan irtenbide bakarra. Elikagai ekologikoen inguruan ere kontraesanak izaten dira batzuetan. Gazta ekologikoa egiten dutela esaten dute batzuek, adibidez, baina otsoa ger-tu izatea ez dute nahi.

Nolakoa izan da lanaren antolaketa bi-daian?

Toki bakoitzean bizpahiru hilabete egon gara. Dinamika oso sinplea zen: iritsi, kokatu eta ikusteko oso zaila den animalia-aren bila hasi. Eszena batzuk hainbat egunetan daude grabatuta, baina egun berean eginda daudela dirudi, egu-nero toki berera eta ordu berean joaten ginelako. Horrela, ikuspuntu desberdi-netatik grabatzen ahal nuen, nahiz eta kamera bakarra izan. Plano gehienak, hiru laurdenak, nireak dira, baina Unai semea ere hasi zen plano batzuk har-tzen nik argazkiak egiten nituen bitar-tean, eta horietako askotxo erabili ditu-

gu gero filman. Hasieran, dardara egiten zioten eskuek, batez ere teleobjektiboak handiak direlako, baina gero eta hobeki aritu izan da lanean. Laster konpeten-tzia egingen dit!

Bidaia amaitu ondoren beste hama-bost hilabete aritu gara muntaketa egiten: bideo irudiak, argazkiak, zuzeneko soinua (lehoien orroak, otsoen uluak...), musika, narrazioa, marraz-kiak... Gidoia Meritxellek, Julio Maza-rico Tuterako idazle eta adiskideak eta Unai berak egin dute, eta hiru bertsio grabatu dira: gaztelaniaz, katalanez eta ingelesez.

Zer nolako esperientzia izan da Unai eta Amaia-arentzat?

Izugarri gozatu dute. Ohituta daude ha-lako gauzetara. Unai bederatzi urte bete zituen Alaskan aurora borealak ikusten. Hartzak, katamotzak, otsoak... ezagutzen dituzte. Animalia horiez

gehien dakiten adituekin hamaika aldiz hitz egiteko aukera izan du Unai eta izugarri ikasi du, baina hala ere hunkit-zen segitzen du animaliak askatasu-nean ikusten dituenean.

Bidaian oso toki desberdinetan bizi izan gara. Namibiako basamortutik An-tartidan 25 gradu zero azpian egotera pasa gara. Unai bi eskolara joan zen bidaian. Australian, herrixka batean gi-nen eta hango eskola publikora joan zen haur aborigenekin. AEBetan, Coloradon, 1.500 metroko altueran zegoen herri txiki batean ginen eta hango eskola pu-blikora joan zen. Gainerakoan etxean ikasten zuten Meritxellekin. Irudi leza-keena baino askoz ere errazagoa izan da guztia. Arropa, adibidez, baldintza klimatologiko guztietarako behar ge-nuen. Thailandian, hotelean gorde zigu-ten neguko arropa eta Namibian autoa alokatu genuen tokian gordetzeko eska-tu genien.

46. BINAKAKO ERREMONTETXAPELKETA

LIGAXKA

AZAROAK, ostegunero eta larunbatero

FINALERDIAK

ABENDUAREN 3 eta ABENDUAREN 10

FINALA

ABENDUAREN 17

2016



Amaia txikia, protagonista jaten duen urrezko sekundarioa.

Bai, egia. Zoragarria da. Gainera seguruenera, bizitza gutzirako bere lehenbiziko oroitzapenak bidaia horretakoak izanen dira. Lur orotarikoa da: edozein gauza jaten du, edonon egiten du lo...

Muturreko tenperaturetan bizi izan gara eta ez genuen ezer izan. Soilik Amaiak izan zuen hiru eguneko katarroa Ipar Amerikan, 15-20 gradu zero azpitik geundela. Unaik orkatila bihurritu zuen paperezko hegazkin batzuen atzetik korrika zihola lau metroko al-dapa batetik erorita. Beste egun batean, Afrikan, sabela nahasi zitzaion. Besterik ez. Estres eta kezka ezarengatik izanen da. Ez dakigu. Baina animaliekin arriskurik ez dugu izan. Afrikan, adibidez, autoaren gainean jarritako bi dendetan egiten genuen lo eta gauean ezin ginen handik jaitsi ezta pixa egiteko ere, lehoiak inguruan ibiltzen zirelako. Askotan izan naiz toki horietan guztietan eta badakit non egon daitekeen arriskua. Eskorpioi batek hozka egiteko, adibidez, burua zapaldu behar diozu, bestela alde egiten du. Oso zaila da. Ez gara arriskuan jarri. Agian, arriskutsuagoa izan daiteke hemen etxetik lanera autoz joatea.

Azken hitza:

Unai Canela, Andoniren semea kopetazuriez

"Aitak erakutsi zidan lehenbiziko gauza izan zen misio bat izan behar duzula. Nire lehen misioa kopetazuriak bilatzea izan zen. Ahate moduko batzuk dira, gure etxe ondoko urmalean bizi direnak. Gero ulertu nuen aitaren trikimailua: misioa aitzakia hutsa da eta dibertigarriena, aldiz, bilatzen ari zarenean ikasten duzun guztia".

.....

egin zutena delako. Abereentzat arriskutsuak zirelako akabatu zituzten eta gauza bera gertatzen ari da orain pumarekin Argentinan eta Txilen. Horrez gain dokumentala hainbat eskolatan emanen da eta zinema areto batzuetan ere jarri nahi genuke. Bartzelonan bost astez izan da ikusgai eta aretoa beteta egon da saio guztietan. Estatu osoan 70 emanaldi baino gehiago egin dugu eta izugarri gustatzen ari zaio jendeari.

Eta hemendik aurrera?

Joan den urtarriletik abuztura beste itzuli bat eman diogu munduari. Media-set taldearen enkarguz hainbat saio grabatu ditugu hainbat tokitan. Oraingoan ez da jarraia izan, baizik eta hiru-lau astetako egonaldiak eta telebista talde baten konpainian. ■

Nolakoa da bidaia honetan garatu duzun heziketa proiektua?

Alde batetik, bidean ezagutu ditugun eskola batzuk beste batzuekin harremanetan jarri dira animalien suntsipenaz hitz egiteko. Adibidez, Patagoniako eskola bat Galiziako batekin aritu da lanean. Patagonian pumarekin egiten ari direna Galizian otsoarekin

11itzulpen

**EUSKARATIK
INGELESERA
ZUZEN**

**INGELETIK
EUSKARARA
ZUZEN**

<http://www.11itzulpen.eus>

info@11itzulpen.eus

Skype:

11itzulpen (34) 699 433 121



Tolosako Babarruna

**BERTAKOAK
GUREAK
GOZOAK
KALITATEZKOAK**

**Hoberenak soilik
aukeratzen ditugulako**

☎ 943 650 253

www.tolosakobabarruna.eus

Ausiki

noiz ez nuen pentsatuko Guardia Zibilak euskarazko hitz berri bat erakutsiko zidanik, ez behintzat amesgaizto krudelenetik kanpo. Bada, iritsi da eguna. Zortzi lagun atxilotu dituzte Altsasuko liskarraren harira, eta operazioari Ausiki izena jarri diote.

Ausiki, fonetika ezaguna duen hitza, euskarazkoa zalantzarik gabe, baina egunerokoan ez darabildana. Hiztegira jo dut. Ausikia eta haginkada sinonimoak dira, baita ausiki egitea eta kosk egitea ere. Iparraldean eta Nafarroako zenbait ingurutan erabiltzen da batik bat.

Operazioak bataiatzeko prozedura ez dut ezagutzen, eta ez dut asko ikertzeko asmorik ere. Hala ere, azken urteetan jarritako polizia-operazioen izenak ematen digute atzean egon daitekeen psikologiaren arrastoa. 2014an Xake operazioaren pean atxilotu zituzten EPPK-ko Bitartekaritzako kideak. Gero etorri zen Mate, gehienbat euskal preso defentsan aritzen ziren abokatuak atxilotuta. 2015ean Pardines deitu zioten ETako ustezko buruzagitzaren aurkako operazioari. ETak hildako lehenbiziko Guardia Zibila izan zen Jose Pardines. Izen sinbolikoen goia, nire ustez, aurten jo dute, 2016an, Aurkikuntza operazioarekin. Espainiako Aberriaren egunean (genozidio basatia ospatzen duen eta lehenago arrazaren eguna izan zen horretan), Kolonen Aurkikuntzaren eta ETaren armategiaren aurkikuntzaren arteko lotura bilatzen du zorioneko izenak.

Azkena, berriz, Ausiki. Guardia Zibilak zeri ausiki egin nahi dion imajinatzea ez da zaila. Usain txarra zerien hasieratik Altsasuko gertakariaren gain-dimentsionatzeari eta proiektzio mediatikoari. Kiratsa areagotuz joan zen bi aldeen bertsioa entzun ostean eta, batez ere, Altsasuko herritarren erantzuna ikusita, manifestazio jendetsu baten bidez salatu baitzituzten muntaia



Estitxu Garai Artetxe

EHU-KO IRAKASLEA

@egarai

Ausiki. Guardia Zibilak zeri ausiki egin nahi dion imajinatzea ez da zaila. Usain txarra zerien hasieratik Altsasuko gertakariaren gain-dimentsionatzeari eta proiektzio mediatikoari. Kiratsa areagotuz joan zen bi aldeen bertsioa entzun ostean eta, batez ere, Altsasuko herritarren erantzuna ikusita, manifestazio jendetsu baten bidez salatu baitzituzten muntaia poliziala eta Guardia Zibilaren gehiegizko presentzia

detsu baten bidez salatu baitzituzten muntaia poliziala eta Guardia Zibilaren gehiegizko presentzia. Eskumak, ordea, gaiari probetxua ateratzeko beta ikusi eta bazterrak aztoratzeko erabili zuen. Gero ezagutu genuen polizia txostenek eurek ere lintxamendua ukatu eta terrorismo delitua baztertzen zutela. Entzutegi Nazionalak entzungor egin eta ikerketa abiatu zuen terrorismotzat jota. Aski ezagunak dira salbuespeneko tribunal horren erreproso politikoko moldeak, ondo baino hobeto eusten dio Ordena Publikoko Auzitegi frankistak emandako lekukoari. Zenbait gaztek epailearen aurrean agertzeko borondatea agertu arren, berriro entzungor egin eta zortzi gazte atxilotu eta horietatik sei kartzelara bidali dituzte. Hori guztiori Ospa mugimendua kriminalizatzeko soinekoz jantzia.

Ausiki, Uxue Barkosen exekutiboak egin zion ausiki erregimenak jarritako amuari. Gertatutakoa argitu aurretik ñabardurarik gabeko gaitzespena egin zuen. UPNk kaosa eta bizikidetzaz arazoak irudikatu nahi ditu, gorrotoak gidatutako norabiderik gabeko jendarrea. Txin pon txi, txin pon txi, erregimenak ofentsiba gogorrari ekin dio. Altsasuko liskarra, Mola eta Sanjurjo-ren hilobiak, Lan Eskaintza Publikoan euskarazko postuak bertan behera uztea... Aurreikustekoa da hurrengo hiru urteetan ere etenik gabeko oldarraldia egongo dela epaitegien eta poliziaren laguntzarekin.

Erregimenak markatutako erritmoari iskin egin eta musika propioa sortzeko bidea topatu beharko du Nafarroako Aldaketaren Gobernuak. Ausikik badu beste adiera bat, ausikitzea “kezkatzea” edo “larritzea” ere bada. Eta zinez ausikiko lizkidake barrenak erregimenak inposatutako narratibari aurre egiteko gaitasun ezak. ■

Irratiaren xarma

Hamazazpi urteko mutiko batek bere buruaz beste egin du. Gazte-txo alaia omen zen, kirolari ona, arazo handirik gabeko familia batean hazi eta hezia. Zer esanik ez dago: gertaerak lur jota utzi ditu etxeok, eta gainerako herritarrek ere kolpe handia hartu dute. Gaztetxoaren hileta eliz-kizuna horren seinale: herriko eliza mukuru bete da, gutxitan bezala. Herri-tarrek familia babestu egin nahi dute, elkartasuna adierazi.

Handik aurrera, ordea, hildakoaren aita eta ama ikusezin bihurtu dira herriar gehienentzat. Inork ez die deus galdetzen, hori zauri ikaragarrian min are handiagoa egitea litzatekeelakoan. Fede oneko jokamoldea izanik, ez dago inori deus aurpegiarizterik. Gurasoek, ordea, gaizki eramaten dute galduriko semea herritarren solasaldietatik ere hain azkar desagertu izana. Isiltasuna minari mina gehitzea dela iruditzen zaie.

Aitaren testigantza hotz eta, aldi be-rean, hunkigarria entzun dut irrati-an. Suizidioa tabu izan beharrean, osasun arazotzat hartu beharra dagoela dio. Auto edo lan istripuen aurkako kan-painak gogoratuz, bide horretatik joan beharra nabarmendu du: ezkutatu beharrean, arazoa ikusarazi, horretaz



Fermin Erbiti

KAZETARIA

Horiexek dira lehengo eguneko irratsaioaren sekretuak. Hori xe da behar-beharrezkoa dugun kazetaritzaren gakoa

mintzatu, naturaltasunez. Eta, batez ere, hori pairatu dutenak saihestu ordez, haiengana hurbildu, beldurrik gabe. Horretaz hitz egiteak apurua ematen du, jakina, hitzak trabaturik

gelditzen baitzaizkigu, zer eta nola esan ez dakigula. Kontua da hitzik gabeko elkartasuna posible ez ezik, horrelakoe-tan eraginkorrena ere izan daitekeela: aski da keinu bat, laztan bat, kalterik nekez sortuko duen besarkada...

Irratietako orojakileen sermoietara ohiturik, zoragarria da horrelako saioak entzutea. Lehenengo egunekoak irrati zaleak asetzeko osagai guztiak zituen: historia interesgarria, ongi azaldua, hainbat ikuspegietatik jorratua, aberas-garria, zer pentsatua eman eta barnea inarosten digun horietakoa. Eta, gaine-ra, euskara dotorean eskainia.

Profesionaltasuna eta zerbitzu pu-blikoa dira kazetaritzaren bi oinarri nagusiak, askotan ahanziak. Bietatik erruz zuen lehengo eguneko erreporta-jeak. Ni historiak harrapatu eta bidaide eraman ninduen, eskutik helduta, ha-sieratik amaieraraino. Hunkitu ere egin ninduen, bi arrazoiengatik: batetik, jakina, istorioaren indarragatik bera-gatik; eta, bestetik, holako perla batek emozioa sortzen duelako kazetaritzan sinetsi nahi dugunongan.

Historia on bat eta hura egoki azal-tzeko gogoia. Horiexek dira lehengo eguneko irratsaioaren sekretuak. Hori-xe da behar-beharrezkoa dugun kazeta-ritzaren gakoa. ■

ERREALITATE
MATXISTA



INDARKERIA MATXISTAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA

A25

Aktore ziren haiek



Eneko Olasagasti
ZINEMAGILEA
@EnekoOlasagasti

Zer dira aktoreak besteen larruan sartzen diren pertsonak izateaz gain? Askoren-tzat luxu eta famaren Olinpoan bizi diren izakiak dira. Izaki eta ez gizaki. Horrexegatik zinemaldian euskarazko pelikularen bat erakusten denean euskal aktoreak alfonbra gorria zapaltzen ikusi nahi ditugu, dotore, egoerak nonbait hala eskatzen duelako, eta irribarretsu, berau zanpatzeak derrigorrezko zoriontasuna omen dakarrelako. Urrun, goian imajinatzen ditugu, eta ez direla beraiek pentsatzen dugu supermerkatuko ordain ilaran ikusten ditugunean, jite triste eta ilunarekin kreditu txartelean geratuko zaion saldoa zenbatekoa izango den kalkulatzeko ahaleginean.

Duela egun batzuk Euskadi Irratiko *Amarau-na* saioan izan nintzen aktoreen lan ezaz hitz egiteko. Aitzakia AISGEk (Artista Interpretariak, Gestio Elkartea), aktoreen eskubideak defendatzen dituen elkarteak, argitara emandako inkesta baten datu lazgarriak. Inkesta horren arabera hirutik bik ez dauka lanik. Zenbakiak. Euskal Aktoreen Batasunean (EAB) 400dik gora aktore daude, horrek esan nahi du 250etik gora aktorek ez duela lanik. Zenbaki potoloak.

Zein babes ederra diren zenbakiak izen eta abizena duten hezur-haragizko historiak ez-kutatzeke. Izen eta abizen zehatzak. Besteak beste, ETBko *Goenkale* eta beste telesailetatik

pasatako dozenaka aktoreenak. Non ote daude orain? Agian supermerkatuko ordain ilaran ezagun egiten zaizun aurpegia, eta ez dakizu zergatik, horietako bat da. Eta, gainera, zenbaki horietan beren burua oraindik aktoretzat dute-nak daude. Zenbat ez ote den bide bazterrean aspaldi geratu?

Orain dela ez asko, ez dut uste orduan hau idazteko ausardia izango nuenik, bi-hiru urte oso txar pasa nituen. Lanik ez eta zintzurreraino zorpetuta, kalean jendearekin topo egitean, eta ohituraren kontra, “zer moduz zaude?” galderari “oso gaizki” erantzuten nuen. Harridura eta deserosotasuna marrazten ziren bestearen aurpe-gian. “Baina zu... ez da posible”. Olinpon, ETBn ez esateagatik, biziko nintzela usteko zuen ziurre-nik. “Ez, ez da posible zuk lanik ez edukitzea”, segitzen zuen. Eta nik, “ba, bai, posible da eta gainera, 50 urtetik gora izanik, berandu da beste edozertan hasteko”.

“Egia da, bai”, erantzuten zuten, “gainera zuen arloan gogorragoa izan da”. Elkarrizketa haiei bukaera ematea artikulu hau idaztea bezain zaila izaten zen.

Bueno, gaur ez daukat lanik eta ez dakit zer egin... Kreditu txartela esku dardaratiz hartu dut eta supermerkatu noa.

Ikusten banauzu egidazu kasu. Ilusioa egiten du. ■

Bijî!



Oihana Etxebarrieta
KAZETARIA
@BetaurrekoMorea

Erdoğan Turkiako presidenteak 370 elkarte feministatik gora itxi ditu. Kurdu herriaren alde ari diren HDP alderdi politikoko kideak espetxeratu ditu azken hiletan. Ilegalizazioak, es-petxeratzeak, zentsura... Ez da giro ez Turkian, ez Kurdistanen. Albiste gogorak heltzen zaizkigu, heltzen zaizkigunean. Nahi baino gutxiago dakigu eta nahi baino gutxiagotan azaltzen diogu Tur-kiako gobernu faxistari gure aurkakotasuna.

Kezkagarria da, azken urtean hainbeste miretsi dugun herri kurdua jasaten ari den zapalketaren aurrean daukagun mobilizatzeko kapazitate eza. Armak hartuta, borrokan zeuden PKK-ko kideak

sareetan etengabea goraipatu ondoren, ez gara egungo egoeran sufritzen eta erreprimitzen ari direnen ondoan egoteko kapazak.

Kezkagarria da ere, errefuxiatuak Greziatik erauzi eta Turkiara eramateko akordioak sinatu dituzten gobernu horiek guztiek duten epeltasu-na. Oinarritzko eskubideak etengabea zapaltzen dituen gobernu batek, nolako harrera egingo die antzeko egoeratik ihes egin duten pertsona ho-riek guztiei? Ba al dakigu nolakoak diren kontzen-trazio-esparruetan bildu dituzten errefuxiatu horiek guztiak? Ardura gurea ere bada, zurea eta nirea. Prest al gaude zerbait egiteko? ■

Umeen aurkako indarkeria

FAMILIA, ISILTASUN GOTORLEKU

Adinez txikikoen kontrako indarkeriak hamaika aurpegi ditu. Sistema patriarkaleko subjektu zaurgarrienak diren heinean, ordea, badute berezko ezaugarri bat: sufritzen dutena ezkutuan gertatu eta geratzen da, erasotzaileak haien senideak direlako gehienetan. Isiltasun horrek, baina, ezin duela errealtatea desitxuratu kontatu digute Bilgune Feministako kide Saioa Iraolak eta Eraikiz elkarteko pedagogo Aitziber Bañuelosek. Indarkeria sufritzen duten umeak ez dira bat edo bi; guztiok omen dugu inguruan biktimaren bat, baita erasotzaile bat ere. Eta horrek beldurtu egiten gaitu, bazterrak ez nahastera bultzatu, arazoa konpontze aldera funtsezkoa denean gaiaz hitz egitea.



Eider Madina Berasategi

@xaukenaxauk

Umeak sistema patriarkalaren subjektu ahulenak direlako eta ezkutuan gertatu eta geratzen den indarkeriaren biktimak direlako heldu dio gai konplexu honi Euskal Herriko Bilgune Feministak, eztabaida eremu publikora zabaldu eta konponbideak aurkitzea xede. Kolektiboaren hitzetan, garrantzitsua da egoera horietan sortzen diren isiltasun-hitzarmenak haustea: “Horretarako, sufrimenduz betetako bizi-hastapena izan duten subjektu zaurgarriak ikusgarri egin behar dira. Lehen pausoa, haurrei subjektu izaera, ahotsa eta sinesgarritasuna ematea da”. Taldeko kide Saioa Iraola Urkiolak azaldu digunez, umeek arazoa plazartzeko urratsa ematen dutenean, maiz ez diegu sinesten: “Haien hitza ez da kontuan hartzen eta umeen fantasia eta asmakizunak direla argudiatzen da, sarritan erasotzailea familiakoa edo ingurukoa delako”.

Sistema patriarkalean boterearen hegemonia heldua, gizona eta heterosexuala da; eta hori mantentzeko tresnarik nagusiena modu eta forma anitz dituen bortxa”, dio Bilgune Feministak. “Horrenbestez, indarkeriaren monopolioa gizon helduek dute (gehienean senarrak, aitak, osabak, anaia nagusiak, aitona) eta hori sufritzen dutenak nagusiki jendartean zaurgarritasun-egoeran bizi diren subjektuak dira: emakumeak eta haurrak”. Indarkeria horren gotorlekua, datuek erakusten duten moduan, familia dela dio Iraolak. “Familia egitura hori eta haren gertuko sarea dira, gehienetan, errealtate lazarri horien isilpeko babesleku; horren adibide adierazpen hauxe dugu: trapu zikinak etxean garbituko ditugu”.


Sexu erasoak, erdigunean

Bilguneke kidearen hitzetan, “indarkeria aldaera anitzen zutabeak estuki lotuta

daude patriarkatuaren baitako jendarteratze-prozesuei”. Eta horri lotuta dago gizon heldu eta heteroaren hegemonia sostengatzen duen sexualitatearen erakuntza: “Gizonek haien gozamenerako eta onurarako nahieran erabil ditzakete inguruko gorputz anitzak; horren adibide dira sexu-erasoak, bortxaketak, publizitate sexista, haurren hipersexualizazioa edota pornografia”.

Halaber, egunerokoan (modu sotila-goan) haur guztiak zipriztintzen dituen indarkeria kultural, sozial eta sinbolikoa ere salatu du Bilgune Feministak, haur eta nerabeen bizi-ibilbidea urraketaz bete dagoen heinean: “Jendarte honetan haur guztiak genero rolen banaketa pairatzen dute jaiotzen diren mementotik eta haien sozializazio-prozesuan zehar eredu binomiala modu zurrun eta hertsian jasotzen dute”.

Indarkeria oro aintzat hartu arren, sexu erasoak nabarmendu ditu Bilgune



Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako egunean, umeak izan ditu gogoan Euskal Herriko Bilgune Feministak, sufritzen duten indarkeria bistaratzea xede.

ne Feministak, “eguneroko errealitatea baitira gurean”. Gaia oso delikatu da, eta ez da erraza datuak aurkitzea. Informazio falta dago eta dauden ikerketa ofizialak zaharkituta geratu dira. 1994an Felix Lopez doktoreak Espainiako Gizarte Gaietako Ministerioak eskatuta eginiko txostenean jasotzen denez, “Kanada, AEB eta Europar Batasuneko hainbat herrialdetan (Espainiako Esta-

tuaren tartean) eginiko ikerketek erakusten dute 17 urtetik beherako nesken %23-25ak eta mutilen %10-15ak sexu gehiegikeriak pairatu dituztela. Eta eraso horien %70-80a familia giroan edo haurraren konfiantzazko inguruan gertatu direla”.

Isiltasun hitzarmena

Umeen kontrako indarkeria sistema patriarkalaren ezaugarri askoren ondorio da: familia eredua, gorputzen sexualizazioa, jendartearen isiltasuna eta konplizitatea, figura patriarkala, helduen nagusitasuna eta abar. Horiek guztiak dira, besteren artean, datu, ikerketa eta irakurketa gutxi egotearen arrazoi nagusiak. Ildo berean, beldurra, lotsa, errudun sentimendua, isiltasun-hitzarmena edota familia ereduaren indarra- ren ondorio da biktimen isiltasuna.

Bestalde, kaleko jendea “egiaren beldur” da, eta ez du informazio eta ikerketa gehiagorik eskatzen. Politikoei, horretaz jakitun, “beste aldera” begiratu ohi dute ardurak saihesteko. Bilgune Feministako kidearen ustez, “arazo bat konpontzeko lehen urratsa aitortu eta onartzea da; jendarteak begiak irekitzea nahitaezkoa da, gai honen inguruko beldurra eta tabua gainditzeko”.

Lanketa eta hausnarketa prozesu kolektibotik ateratako irakurketan argi utzi dute dimentsio zabal eta anitza duen gaia dela honakoa. “Umeen kontrako indarkeria patriarkalak ertz asko ditu, eraso fisikoez harago, arduragabekeria fisikoa eta emozionala, eraso psikologikoak, sexu-abusuak edota euren amak pairatzen duen indarkeriaren lekuko izatea”. Salatu dutenez, “azken kasu honetan legeak hutsune nabarmenak ditu, etxean indarkeria-egoerak bizi dituzten haurrak ez direlako zuzeneko biktimatzat hartzen”. Adituen arabera, haurrangan albo-ondorioak izaten ditu indarkeria mota horrek eta sarritan gaitz psikologikoak, agresibitatea edota urduritasuna eragin ditzake.

Erakunde feministak ohartarazten duen bezala, “sistema judizialaren egitura bera patriarkala da eta haien baldintzen arabera aztertzen dira kasuak. Orokorrean epaileak gizonezkoak dira, eta haurraren hitzak ez du pisurik, sarritan ez dagoelako froga garbirik. Lekukoa oro har, haurraren ama izan ohi da eta haien hitza zalantzan jartzen da sarritan, manipulazioa argudiatuta”.

» Ikerketek erakusten dute 17 urtetik beherako nesken %23-25ak eta mutilen %10-15ak sexu gehiegikeriak sufritu dituztela, eta erasoan %70-80 familia giroan edo umearen konfiantzazko inguruan gertatu direla

Kasu gehienak artxibatu egiten dira

Sexu abusuen kasuan oso ohikoa da hori. "Hasteko, salaketa gehienak ez dira epaitegietara iristen eta lortzen duten apur horiek trabaz betetako bide bati egin beharko diete aurre, eta zenbait kasutan gertatu den bezala, seme-alaben zaintza kentzeko arriskua hartuta". Iraolak gehitu duenez, prozesuen geldotasuna kontuan izanik, auziak aurrera jarrai dezan aparteko abokatu bat behar izaten da gehienetan, eta askok ezin izaten dute aurrera segi, baliabide ekonomikoaren faltagatik. "Azken batean, epaitegietara iristea lortzen duten salaketek bide judizial motza izan ohi dute, kasu gehienak artxibatu egiten baitira".

Bilgune Feministak urte hasieran Gasteizen jazotako muturreko adibidea ekarri du gogora. Alicia izeneko 17 hilabeteko haurrari sexu-abusuak egin eta gero balkoitik botata hil zuen haren amaren bikotekideak. "Eusko Jaurlaritzak berak ez du indarkeria sexista gisa izendatu eta onartu. Horrez gain, zaintza partekatua legea onartu zenetik, epaitegietan erabakitzen diren banaketa gehienetan ez dira indarkeria sexista

egoerak kontuan hartzen, eta erasotzaileei bisita-erregimena mantentzen zaie", salatu du elkarteak.

Guztion ardura

Azaroak 25, Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako egunaren harira Bilgune Feministak egin duen irakurketa ez dela zerotik abiatzen esan digu Iraolak. "Psikologo, abokatu, hezitzaile eta elkarteak lanean ari dira aspaldian, baina Bilgunetik gure ekarpena egin nahi dugu, gaia ezkutuko dela jakin badakigulako. Umeen aurkako indarkeria lehen planora ekarri eta eztabaida publikoa sortzea da gure helburua: konpartitzeko beldurrez barnean ditugun bizipen lazgarriez hitz egiten hastea, ezkutuko errealitate anitzak bistaratu eta horietara gerturatzea; finean, ezkutuko bortxa sistema horren biziraupena onartzen duen isiltasun hitzarmenak haustea".

Egin duten irakurketa politikoa gai honetan sakontzeko abiapuntua dela diote: "Jendarte heldu gisa dugun arduraren jabe izan behar dugu. Agintari politiko eta judizialen ardura eta

INSTITUZIO ETA ERAGILEEN URRATSAK

Hezkuntza-esparruan haur eta nerabeek jasan ditzaketen erasoaren aurrean profesionalak nola jokatu behar duten azaltzen duen protokolo berria jarriko du martxan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak. Dokumentu horren helburu nagusia arriskuak garaiz prebenitu eta detektatzea da.

Bestalde, Iruñeko Andrea elkarteak emozioak eta sentimenduak ezagutu eta gidatzeko pintura tailerra antolatu du, indarkeria patriarkala jaso duten 6-14 urte bitarteko haurrentzat. Argibide gehiago: Asociacionandrea.org

inplikazioa exijitzen dugu, baina baita jendarte osoaren elkarlana ere. Hortaz, nahitaezkoa da txikitatik autodefentsa feminista lantzea eta hezkuntza eredu hezkidetzaille eta feminista baten aldeko jardunarekin jarraitzea". ■

2016 INDARKERIA MATXISTARI BURUZKO I. JARDUNALDIAK

ETA SALAKETAREN
ONDOREN,
ZER?

23
AZAROAK

ANTOLAZAILEA:

ZARAIZKO UDALA

BABESLEA:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Departatu Nagusia
Berrikuntza, Enpresa eta Merkataritza
Dimitzio Garmendia de Guadalupe

Indarkeria matxista jasan duten emakumeek behin salaketa jarri gero bizitzaren duten prozesuari buruzko gogoeta egin nahi dugu jardunaldi hauetan. Horretarako gai hauek aztertuko ditugu:

- Askok hitz egin da indarkeria matxista kasuetan salaketa jartzearen garrantziari buruz. Baina zer prozesu pasatu behar du salaketa jarri duen emakumeak?

- 12 urte bete dira 1/2004 Lege Organikoa onartu zenetik [genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriak buruzkoa]. Legearen argi-itzalak aztertuko ditugu, azken 12 urteko esperientzian oinarrituta.

EGITARAUA

9:30. Harrera.

9:45. Inaugurazioa.

Xabier Txurruka, Zarauzko Udaleko Alkatea eta Gloria Vázquez, Parekidetasun departamentuko zinegotzia.

10:00-11:00. Indarkeria sexistaren aurkako

erantzun penala: alde onak eta txarrak.

Miren Ortubay [EHUko Zuzenbide Penaleko irakaslea eta Maria de Maeztu forum feministako kidea].

11:00-11:30. Atsedena-kafea.

11:30-12:30. Eguneroko jardunaren mitoa eta errealitateak Epaitegietan. Patricia Verdes Cearra - abokatu - genero indarkerian aditua.

12:30-13:30. Salaketak emakumeengan duen eragin emozional eta psikologikoa. Norma Vázquez García, feminista, psikoterapeuta, Sortzen aholkularitzako zuzendaria.

14:00-16:00. Bazkaria.

- Gogoeta egingo dugu epaitegietako prozesuari buruz eta indarkeriaren biktima den emakumeak jasan dezakeen bigarren biktimizazioari buruz.

- Azkenik, esperientzia hori bizi izan duten emakumesi ahotse emango diogu.

Jardunaldiaren helburu nagusia izango da salaketa jartzearen alde onak eta txarrak ezagutzea eta salaketa jarri duten emakumeek pasatzen duten prozesuaren nondik norakoak jakitea.

16:00-17:00. Erronka berriak, genero

indarkeriaren aurrean. Blanca Estrella Ruiz Ungo, Clara Campaamar elkarteak presidentea.

17:00-18:00. Genero indarkeriari aurre egiteko

ahalduntzea. Indarkeria jasan duten emakumeen elkartearen esperientziak. Hoize Berria [Bilbo], Mujeres que aman demasiado [Bilbo] Mujeres Bizirik [Gasteiz] eta Mujeres al Cuadrado [Eibar]

18:00. Itxiera.

Aurre izen-ematea (plaza kopurua mugatua):

- ONLINE

www.berdintasunazarautz.wordpress.com

- Parekidetasun departamentua

Zigordia 33, 1. solairua

berdintasuna@zarautz.eus / 943 005 117

Jardunaldiak: Alameda Hotelean izango dira

- Hitzaldi guztiak gaztelaz. Aldi bereko itzulpena eskainiko da gaztelaniatik euskarara.

- Sarrera doan.

- Hotelean bazkaltzea aukera: 15 €

Aitziber Bañuelos, Eraikiz elkarteko kidea

“GURE FAMILIAN ERE BIKTIMAK EDOTA ERASOTZAILEAK AURKITZEARI BELDURRA DIOGU, HORREGATIK EZ DA GAI AZ HITZ EGITEN”

Esku-hartze sozialaren eremuan egiten du lan Eraikiz kolektiboak. Bilboko egoitzan elkartu gara Aitziber Bañuelos hezitzaile eta pedagogoarekin, umeen aurkako indarkeria azaleratzea xede, jardunaldiak antolatu berri eta txosten bat plazaratzear dutenean. Azalpenak eman bitartean zirriborro ugari egin du paperean, erdigunean “sistema patriarkala” idatzi eta “familia” hitzaren gainean boligrafoa maiz pausatuz.



Jon Torner Zabala
@jtorner

Familia barruan gertatzen da umeen aurkako indarkeria kasu gehien.


Harremanak saretzeko indarkeria baliatzen dute sistema guztiek, eta familia ez da salbuespena. Babesgabetasun, inpunitate eta zaurgarritasun espazioa da, apurtzeko oso zailak diren baloreak dituen eta sendeak maitatzera behartzen zaituen inolako baldintzarik gabe. Indarkeria matxistarekin gertatzen den bezala umeen aurkako indarkeriaren kasuan ere, garrantzitsua da hau, zeren eta min egiten diguten pertsonak gehien maite ditugunak direnean, defentsa mekanismoak errotik zartatzen zaizkigu. Hurbilekoen indarkeriak sortzen ditu traumarik handienak, konfiantza galera izugarria dakarrelako berarekin: Min egiten didatenak babestu beharko ninduketenak baldin badira, norengan izango dut konfiantza?

Familia barruan sortzen den indarkeria da ankerrena.

Ankerrena, eta bistaratzen zailena...

Hala da, horregatik inpunitatearena. Trapu zikinak norberaren etxean garbitzen dira, besteren etxeetan sartzeko eskubiderik ez dugula pentsatzen dugu. Gainera, besteren familiak ispilu dira guretzako. Ikusten dugunean auzokoenean zerbait txarra gertatzen ari dela, sentitzen dugu gurean ere gerta daitekeela, eta beldurra ematen digu. Beldur horrek, gurean ere biktimak edota erasotzaileak aurkitzeari, besteren etxeetan muturra ez sartzera bultzatzen gaitu.

Umeen aurkako indarkeria ezkutuan gertatzen da gehienetan, ez da detektatzen, are gutxiago salatu. Indarkeria matxista ari da pixkana azaleratzen, mugimendu feministak



“Familia zaurgarritasun espazioa da, batez ere euren eskubideak defendatzeko zailtasunak dituzten kolektiboentzat. Eta ahulenak umeak dira zentzu horretan. Horri gehitzen badizkiozu beste faktore batzuk, aniztasun funtzionala edota buru gaixotasuna, imajina ezazu...”

urratsak eman ditu, emakumeak batu eta ahotsa altxa dute. Umeak, ordea, ez dira gai teoria bat garatu eta taldean biltzeko, norbaitek egin behar du eurengatik: pertsona helduek. Eta hain justu, haientzat erreferentzia diren helduak dira maiz min ematen dietenak. Babestu beharko lituzketenak erasotzaile. Gai oso konplikatu da. Eta horri gehitzen badiogu sexualitatea, akabo.

sufritzen baduzu, ikusten baduzu,
erreakzionatu, erantzun,
eskatu laguntza



EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIARI EZ

Bizkaia
enplegua, gizarte inklusioa eta
berdintasuna sustatzeko saila
departamento de empleo,
inclusión social e igualdad

Sexu erasoez ari al zara?

Bai, baina horri heldu aurretik gauza bat: Haien amek pairatzen duten indarkeriaren zuzeneko biktimak dira umeak. Indarkeriak ez du derrigor esan nahi kolpe edota irainak daudenik, ez du zertan fisikoa edo hitzezkoa izan. Adinez txikikoak indarkeria-ingurune batean hazteak esan nahi du borroka-giroa bizi dutela, maitasun eza dagoela eta komunikazio gabeziak daudela. Eta komunikazio ezak indarkeria gradu altua gordetzen du batzuetan, ez baitago indarkeria makurragorik inkomunikazioa baino.

Agerikoa ez den indarkeria oro identifikatzeko zailagoa da, eta haren inpaktua kaltegarriagoa da gainera, bereziki gauzak desberdintzeko gai ez direnentzat. Haur batek ikusten badu gehien maite duen pertsonari min ematen diotela, nork eta gehien maite duen beste pertsonak... Ez da gai ongia eta gaizkia desberdintzeko, eta ikasten ari dena bereziki etxean jasotzen du. Umeak zuzeneko biktimak dira. Bestelakoa esatea garrantzia kentzea litzateke, eta umeen babesgabetasun eta zaurgarritasuna areagotzea.

Sexu erasoei dagokienez, patriarkalak dira sexistak baino gehiago, neska eta mutilak baitira biktimak, baina erasotzaile ia denak gizonetakoak dira, eta hurbilekoak, aita, aitona, osaba... Egia da datuen arabera biktimen artean gehiago direla neskak, baina diferentziak ez dira nahikoa handiak umeen generoa arrisku faktorea dela baieztatzeko. Plazaratutako ikerketek diotenez, umeen lehendabiziko urteetan zazpi mutiletik batek pairatzen ditu sexu abusuak, eta bost neskatik batek. Adinez aurrera egin ahala neskak dira gehiago.

Zazpi eta bostetik batek, hori asko da.

Umeen %17ak sufritu ditu sexu gehiegikeriak. Kontua da denbora errealean –biktimak erasoak jasaten ari diren bitartean– kasu guztien %2 detektatzen direla, eta horietatik

%1 besterik ez dela salatzen, etxekoek erabakitzen dutelako isilpean mantentzea. Zaila da beraz proflez hitz egitea, %98 ezezaguna baitzaigu. Baina ikerketa gehienak bat datoz: Umeen ia %20k sufritu du sexu erasoren bat.

Sinestea era kostatzen egiten zaigu...

Ikusezinak baitira, isilpean geratzen dira. Eta isiltasuna apurtzeko onena zer den? Hitz egitea. Zuri ez dizu inguruko inork kontatu umea zenean sexu gehiegikeriak sufritu zituela? Guztiok dugu inguruan kasuren bat. Ohikoa da. Galdetzeak berak ere beldurra ematen digu, ordea. Zuri bihar lagunik onenak kontatzen badizu sexu-gehiiegikeriak sufritu zituela, atzekoz aurrera eroriko zara. Eta esaten badizu bere alabaz abusatuta zuela? Komunera joan eta oka egingo duzu, baina ez hainbeste nazkagatik, sustoagatik baizik. “Zer demontre egingo dut nik orain?!” Biktimak batzuek latzak kontatu dizkigute, pelikuletan ere ikusten ez ditugunak. Eta beldurra sentitzen dugu, beldurra biktimak gertu izateari, beldurra erasotzaileak gertu izateari.

“Funtsezkoa da biktimek kontatu dizutena sinesten duzula eta oso garrantzitsua iruditzen zaizula ikusaraztea”

Eta, nola egin behar zaio aurre honi guztuari?

Funtsezkoa da kontatu dizutena sinesten duzula eta oso garrantzitsua iruditzen zaizula ikusaraztea. Eta beste gauza bat: sexu-gehiiegikeriek ez dituzte konpontzerik ez dauden ondorioak eragiten. Tratu txar guz-

tiekin gertatzen den bezala, horrekin bizitzaren ikas daiteke, ahaztu ez baita egin behar.

Guk, pertsona helduok, halakoak detektatu nahi baditugu, inguruari adi-adi begiratu behar diogu, zerbaitek kirrinka egiten duenean erreakzionatu ahal izateko. Era berean, umei irakatsi behar diegu mugak jartzen, haien gorputz eta emozioak ezagutzen, eta garapen psiko-sozialerako gaitasunak lantzen. Baina umeak ezin du eragotzi sexu-gehiiegikeriak sufritzea. Besterik esatea ume horiek erruduntzat jotzea litzateke. Biktimari argi azaldu behar zaio berak ezin zuela gertatutakoa eragotzi, kasu askotan ez baitago indarkeriarik, manipulazioa baizik. Berarentzat berezia den pertsona bat denean halakoak egiten dizkiona, gertatzen ari dena ulertzea ere kostatzen da, eta litekeena da sexuaz gozatzea, edo parte hartzea, ez baita sexu nola-norekin praktikatzen den. Horrek ez du esan nahi umeek ezin dituztenik detektatu –eta komunikatu– gustuko ez dituzten jarrerak, baina harreman afektiboa dagoenean defentsak erabat jaisten dira.

Ezinbestekoa da, bestalde, agente guztiek elkarlanean urratsak ematea: justiziak, hezikuntzak, administrazioek, etikaren alorrean dabilzanek (giza eskubideetan adituak, esaterako), biktimekin esku hartzen dugun elkarteek, parte-hartzea sustatzen dutenek... eta zuek, hedabideek.

Gomendiorik?

Ez alarma sozialik piztu, eta ez dramatizatu. Sarri entzuten dugu: “Gaixoa bortxatua izan den umea”. Ez, “gaixo” hori ken ezazu, faborez. Bortxatua izan da, kito. Albistearen bitartez pertsona horiek nola ahaldundu pentsatu behar dugu. Biktimak ez du behar irakurtzea “gaixoa zu”, zera esatea baizik: Biktimatza aitortzen zaitut, sinesten dizut eta zure mezuarekin bat egiten dut: hau akabatu beharra dago. ■

NIK EMAKUMEENGANAKO INDARKERIARI EZ, ETA ZUK?

Azaroaren 25ean, emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko egunean, **ikur honekin** indarkeria matxisten kontrako zure jarrera adieraz ezazu.

Jarri biribil hau zure etxeko leihoan.

Publiko egin ezazu emakumeenganako indarkeria baztertu egiten duzula.



Nik indarkeria sexistari ezetz, eta zuk?

EGITARAU. PARTE HARTU!

Azaroak 25
OSTIRALA

EMAKUMEENGANAKO
INDARKERIAREN
AURKAKO
NAZIOARTEKO
EGUNA

Azaroak 18

18:30 • Euskaldunberri aretoa, Bidebarrieta kalea 18.
“Onatin Indarkeriaren Diagnostikoa” aurkezpen hitzaldia
Norma Vázquez aditua

Azaroak 23

19:00 • Euskaldunberri aretoa, Bidebarrieta kalea 18.
Hitzaldia:
¿Qué puedo hacer yo para terminar con las violencias machistas?
Maitena Monroy autodefensa feminista aditua.

Azaroak 25

ETXEO LEIHOETAN Puntu moredu **poster** hau ipintzea.
KONTZENTRAZIOAN parte hartzeko deialdia
18:30 Onatiko Plazan.
22:30 • Santa Ana Antzokian.
Antzezlan: **EL FLORIDO PENSIL NESKAK** (Euskaraz)

Azaroak 26

10:30 • Gorritxikoko tunelean
Mural margoketa. Zatoz parte hartzera!
Ainara Azpiazu Axi margolariak dinamizatuta



**¡NO A AGREDIR NI
A VIOLENTAR!
EZ ERASOTZEARI, EZ
DERRIGORTZEARI!**



**¡SÍ A LA FIESTA Y
AL RESPETO!
BAI FESTARI ETA
ERRESPETUARI!**



Tolosaldeako eta Urola Erdiko Mankomunitateak: Erraustegia egin nahi duen GHK SAU-k kiebra egin du

Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa (GHK) partzuergoko batzarkideak diren Tolosaldeako eta Urola Erdiko Mankomunitateetako ordezkariak (EH Bildu koalizioak) txosten tekniko eta finantziero bat zabaltzeko erraustegi proiektua finantzatzeko asmoa izan dezaketen banketxeen artean. GHK SAU-ren egoera ekonomikoa azaltzen da bertan. GHK SAU da GHK partzuergoak 2008an sortu zuen enpresa, eta berak du erraustegia egiteko eskubidea. Txostenaren arabera, GHK SAU-k kiebra jo du eta ARGIAk hitz egin du txostenaren egilearekin.



Estitxu Eizagirre Kerejeta
@eeizagirre

Eta gertatzen bada GHK SAU-k ezin duela erraustegia egin, kiebra jota dagoelako? Erraustegi lanen lizitazioa egin gabe dagoen honetan, oraindik kontratua sinatu ez duten enpresei finantzazioa eman behar dieten bankuek galdera hori izan dezakete buruan. Izan ere, Tolosaldeako eta Urola Erdiko Mankomunitateek bankuetara bidali duten txosten finantzariak azaltzen du, erraustegia egiteko ardura duen GHK SAU kiebra egoeran egon daitekeela. Laburrean esanda, GHK SAU-k dituen ondasunak eta eskubideak gutxiago direla bere kontabilitatean adierazten dituenak baino, eta aldiz, dituen zorrak eta betebeharrak handiagoak direla kontabilitatean islatzen dituenak baino.

GHK SAU porrot ekonomikoaren ondorioz disolbatuko balitz, horrek ekarriko luke zorraren eztabaida lehertzea: GHK SAU enpresak bankuei zor dizkien swapen kargu nor egingo litzateke, GHK partzuergoa? Horrela izan dadin lotu zituzten gauzak bai bankuek eta baita GHK-k ere, konpromiso kontratuen bidez. Baina ez dago garbi konpromiso kontratu hauen baliagarritasuna, eta ezta ere ea swapak ordaintzen jarrai-

tu beharko litzatekeen, nork ordaindu beharko litzatekeen eta zein kopurutan. Galdera horiek denak epaitegitan argituko lirateke.

Bestalde, GHK SAU porrot ekonomikoaren ondorioz disolbatuko balitz, erraustegia egiteko lizitazioaren pleguak berriz atera beharko lirateke, oraingo pleguetan GHK SAU agertzen baita kudeatzaile. Pleguak berriz atera behar izateak esan nahi du eraikuntza lanak hilabeteetan atzeratzea.

Jarraian dituzu zehatz GHK SAU-ren gorabehera ekonomikoak eta artikulua- ren amaieran GHK SAU ixteko aukerak eta ekarriko litzatekeen ondorioak.

GHK SAU-ren Ondare Garbia eta Kapitala

Elkarte Anonimoen Espainiako Legeak agintzen du Ondare Garbi positiboa behar duela sozietate batek; Ondare Garbi negatiboa duen sozietatea disoluzio egoeran jarriko litzatekeela. Eta Ondare Garbia zer da?

Ondare Garbia = Aktiboa minus Pasiboa da. Aktiboa dira ondasunak eta eskubideak. Pasiboa dira hirugarrenetikiko zorrak eta betebeharrak.

GHK SAUko administrazio kontseiluak martxoaren 30eko batzarrean onartu zuen *Ondare Garbiko Egoera Aldaketa* dokumentuan (ikus koadroan) bere Ondare Garbia kalkulatzeko du 678.026 eurotan. Hori da duen marjina, disoluzio egoerara ez joateko. Eta bere kapitala –bere jabeak, alegia, GHK kontsurtzioak, jarritako dirua, GHK SAU martxan jartzerako– milioi bat eurokoa da. Bankuetara zabaltzeko txostenaren arabera, hau berez, jada, egoera arriskutsu bat da. Sozietateen Legeak esaten baitu kapitalaren erdia baino gutxiago denean Ondare Garbia, jada arazotan zaudela (kapitala murriztu beharrean). Izan ere, kapitala da hartzekodunek daukaten bermea: Kiebra joz gero, “ardura mugatua” dute enpresek, eta muga kapitala da.

Tolosaldeako eta Urola Erdiko Mankomunitateek bankuetara zabaltzeko txostenak dio, ordea, pasiboa dena baino txikiago eta aktiboa gainbaloratuta daudela GHK SAU-k batzarrean onartutako dokumentu horretan. Eta beraz, egoera errealean Ondare Garbi negatiboa duela. Ikus ditzagun, banaka, puztutako eta txikitutako kontzeptuak.


GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA SAU**ONDARE GARBIAKO EGOERA ALDAKETA**

	Kapital	Erreserbak	Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak	Ekitaldiaren emaitza	Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	Estaldura eragiketak	GUZTIRA
SALDOA 2013KO ABENDUAREN 31N	1.000.000 €	19.284.884 €	- 46.569.944 €	- 9.670.500 €	37.574.044 €		1.418.484 €
SALDOA 2014KO ABENDUAREN 31N	1.000.000 €	19.284.884 €	- 56.240.444 €	- 3.610.080 €	41.078.625 €		1.312.985 €
SALDOA 2015KO ABENDUAREN 31N	1.000.000 €	19.284.884 €	- 80.060.524 €	- 795.710 €	41.239.376 €		676.026 €

GALEREN ERA IRABAZIEN KONTUA**2015, 2014 ETA 2013KO ABENDUAREN 31N AMAITURIKO EKITALDIEI DAGOKIONA**

	2015	2014	2013
ERAGIKETA JARRAITUAK			
Negoio-zifraren zenbateko garbia	24.660.645 €	25.959.264 €	27.422.626 €
Zerbitzu-prestazioak	24.660.645 €	25.959.264 €	27.422.626 €
Hornidurak	- 17.679.164 €	- 17.830.773 €	- 16.281.953 €
Aktibo ukiezina- lursailen, eraikuntzen, instalazio teknikoen eta aribideko ibilgetuaren gaineko eskubideak	1.706 €	12.177 €	1.570 €
Langile gastuak	- 657.851 €	- 658.640 €	- 530.054 €
Beste ustiapen-gastu batzuk	- 904.051 €	- 602.761 €	- 810.588 €
Kanpo-zerbitzuak	- 896.195 €	- 593.961 €	- 804.844 €
Zergak	- 7.856 €	- 8.800 €	- 5.744 €
Ibilgetuaren amortizazioa	- 909.774 €	- 1.161.103 €	- 1.818.447 €
Ibilgetu ez finantzarioaren dirulaguntza eta bestelakoen egozteak	428.459 €	510.901 €	848.899 €
Ibilgetua besterentzearen galera eta emaitzak	8.334.888 €		- 8.334.888 €
Bestelako emaitzak	7.088 €	- 20.708 €	- 8.765.535 €
USTIAPEN EMAITZA	13.282.146 €	6.208.157 €	- 10.268.370 €
Finantza gastuak hirugarrenetikiko zorrenetatik	- 9.878.514 €	- 9.004.473 €	- 10.194.303 €
Finantza gastuak higieizinei gehitzea	169.537 €		
Arrazoizko balio-aldaketa finantza tresnetan	- 4.368.879 €	- 1.013.764 €	10.792.173 €
FINANTZA EMAITZA	- 14.077.856 €	- 10.018.237 €	597.870 €
ZERGEN AURRETIKO EMAITZA	- 796.710 €	- 3.810.080 €	- 9.670.500 €
EKITALDIAREN EMAITZA	- 796.710 €	- 3.810.080 €	- 9.670.500 €

“Txostena egiteko erabili dugun dokumentazioa, GHK-k berak batzarretan onartu dituen diru-kontuak baino ez dira. Hauek irakurri, NIC (gaztelarazko siglak) nazioarteko kontabilitate arauak aplikatu eta erraustegia egiteko atera dituzten pleguak irakurtzea eta oinarritzko matematika aplikatzea (ez dago logaritmorik ez ariketa konplexurik. Batuketa eta kenketa egitea nahikoa da). Oso gauza sinplea da” azaldu du txostenaren egileak.



Bankuek eskatzen diotena baino 32,3 milioi euro gutxiago kontatzen du GHK SAU-k bere zorra

Gogoratzen 2011n GHKren lehendakari Carlos Ormazabalek La Caixa eta Banestorekin erraustegiaren lehen finantziatorako sinatutako swapa? La Caixa sinatu aurretik egin zion testak ondo-rioztatu zuen “ez zuela ezagutzarik ez esperientziarik, produktu finantziero honek ekarriko zituen arriskuak ebaluatzeke”. Astebetera errepikatu zituen testetako bai, beharrezko ezagutza eta esperientzia pilatuak zituen, nonbait, eta berak sinatu zituen swap kontratuak.

Swapa kontabilitatean pasiboa da, elkartearen betekizuna da. Bankuek swap horrengatik eskatzen duten diru kopuruan (67,8 milioi euro) kontabilizatuz gero zorra, GHK SAU-k jada Ondare Garbi negatiboa izango zuen. Zer egin zuen 2014an, EH Bilduren esku zegoen GHK SAUK? Deribatu finantzieroetan Espainiako aditu nagusietako bat den Prosper Lamothe (Ekonomia Finantziarioan katedraduna) kontratatu zuen. Lamothe, 2011ko kontabilitate arau berriak aplikatuz, swapien pasiboa balio errealean estimatu zuen. Horrek jada eragin zien auditoreei marka bat jartzeari: “Kontuz, zu ari zara esaten zure pasiboa dela 15 milioi euro gutxiago bankuek eskatzen dutena baino”.

2015ean ez dute Lamothe adituaren laguntzarik izan. Oraingoan GHK SAU-k berak egin du kalkulua eta bankuek eskatzen dietena baino 32,3 milioi euro gutxiagoan kalkulatu du zorra, auditoreek egindako txostenean ikus daitekeenez. Auditoreek “salbuespenekin” onartu dute pasiboa era horretan murriztu izana –salbuespenak esan nahi du auditoria ez dela bustitzen balorazio ho-

IRABAZIAK HAINBESTE LOTZEAREN ARRISKUA

Testuan zehar deskribatutako ziurgabetasun egoera honetan, enpresak aurkeztu daitezkeen mozkin erakargarria (%10,5ekoa) bermatzen saiatu dira erraustegi proiektu berrian eta horrek ekarri du kostua 1.500 milioi eurotik gorakoa izatea –lizitazio pleguetan agertzen diren eguneratze klausulen arabera, 2.000 milioi eurotik gora joan daiteke–.

Bankuek eta inbertsoreek ziurtasuna maite dute. Horrengatik lotu dituzte swap kontratuak eta notaritza sinatutako konpromiso kontratuak. “Baina gehiegi lotze horrek arriskuak ditu” adierazi digu gure iturriak. Azaldu dugu, 2011n sinatutako “konpromiso kontratua” nuloa izan daitekeela. Horrez gain, esleipen fasean dauden pleguek ere legedia urratzen dute, lizitazioleari ziurtasuna eman nahian ezarri duten ordainketa moduarekin. Europako

legediak (2016ko apirilaren 18tik indarrean), emakida edo kontzesio administratibo kontratuak arautzerakoan muga bat ezarri du: kontratuaren irabazleak dirua galtzeko arriskua bere gain hartu behar du. Alegia, ezin direla irabaziak bermatu, merkaturaren eskaera gutxitzen bada enpresak gutxiago irabazi behar duela. 5. artikuluan espreski dio egin dituen inbertsioak ez berreskuratzeko arriskua ere bere gain hartu behar duela enpresak. Erraustegi berriaren pleguek ez dute lege honek dioena errespetatzen: gipuzkoarrak bai ala bai ordainduko dituzte –erretzera zabor asko eramanez edo batera ez kostu finkoak, inbertsioa, finantzaketa kostuak eta gainerakoak. Beraz, enpresek ez dute hartzen bere gain merkatu arriskurik (zaborrik ez egotea) legeak agintzen duenaren kontrara.

rretan baina jakinaren gainean jartzen duela elementu hori hor dagoela–.

Baina eman dezagun baietz, GHK-ko administratzaileek arrazoi dutela, eta pasiboaz eurek egiten duten balorazioa zuzena dela. Azter dezagun aktiboa: ongi kalkulatu dago?

Aktiboan, aldiz, aurreikusitako gabeko TMB proiektua ere kontatuta dago

Urteko diru kontuetan dago aktiboaren informazioa. 2014an eta 2015ean kontabilizatu dituzte aktibo gisa Tratamendu Mekaniko Biologikorako (TMB) plantaren ikerketa eta ingeniari lanak, 1,8 milioi euroan. Kontabilitateak dio

aktiboan sar daitezkeela, etorkizunean sarrerak sortuko dituen eskubide eta ondasunak. Baina eskubide edo ondasun horrek ez badu etorkizunean sarrerarik ekarriko, hori aktibotik kendu eta galeretara eramanez behar da. TMBa aktiboan sartu dute, eta ez dute egitea aurreikusia, oraingoan. Ondare Garbiaren 678.026 euroi 1,8 milioi euro kenduta, -1.121.974 euroko Ondare Garbi negatiboa luke GHK SAUK. Eta kapital soziala milioi bat eurokoa denez, kiebra egoeran legoke.

Baina bankuetara bidalitako txostenak, aktibo bihurtutako beste 8,3 milioi euro ere zaltzan jartzen ditu. Aurre-



Azaroaren
15etik
aurrera

Iparraldeko errealitatea
bertatik bertara

Entzun ANTAXETA2 105.8 FM

Euskal Herrikoa
eta
euskara

ko legealdian, EH Bilduk erraustegia ez egitea erabaki zuenean, GHK-ren urteko kontuetan aktiboan zeuden erraustegiaren ingeniaritza lan guztiak, 8,3 milioi euro, galeretara joan ziren. Orain GHK SAU-k, galeretara eraman zen ingeniaritza lan hori guztia berriro aktibora pasa du, erraustegi proiektua berriz martxan dagoenez. Horraino logikoa da dena. Baina bankuetara bidalitako txostenak zalantzan jartzen du aurreko erraustegi proiekturako egin ziren lan guztiak %100ean baliagarriak izango direnik oraingo erraustegi proiektua egiteko; jakina baita proiektua aldatu egin dela, dimentsio txikiagoak izango dituela...

Egiteko asmorik ez dagoen TM Baren ingenieritza lanak (1,8 milioi euro) eta erraustegi proiektu zaharrarenak (8,3 milioi euro) batuta, 10 milioi euro aktibo bihurtu dituzte GHK-ko bazkideek, jakinik ez direla errealak.

2016an zor handiagoa

Orain arte azaldutakoarekin, aktiboan kontabilizatutako 10 milioi euro zalantza-azkoak dira eta pasiboan kontabilizatutako beste 32,3 milioi euro zalantzan jarri dituzte baita auditoreek ere. 42 milioi euroko zorra izateko arriskua du GHK SAU-k, beraz, 2015ean.

Zulo horri gehitu behar zaio 2016an GHK SAU-ren aktiboa 46 milioitan murriztu egingo dela. Zergatik? GHK SAU-k erraustegia egiteko duen eskubidea (aktibo ukiezina), obra lizitatutakoan kontratatutako enpresena izatera pasako delako. Obra lizitzatzeko pleguetan aktibo hau 46.465.730 milioitan baloratzen da. Beraz, 2016an GHK SAU-ri bere Ondare Garbia 46 milioitan murriztuko zaio.

Txosten finantzio honen eragina erraustegiaren obren lizitazioan

Urola Erdiko Mankomunitateak eta Tolosaldekoak txosten honen bidez jakinaren gainean jarri ditu bankuak. Beraiek direlako hartzekodunak eta beraiek izan daitezkeelako hurrengo proiektuetako finantziazio iturriak. Lizitazioeko pleguetan iragartzen da lehiaketa irabazten duen enpresak bankuekin beste swap bat sinatuko duela. Pleguen arabera, 240 milioi euroko beste mailegu bat finantzatu beharko dute bankuek. Oraindik ez da erraustegia egiteko kontraturik sinatu eta beraz, bankuei helarazitako informazio honek izan dezake eragina obren lizitazioan.

Txostena bankuetan mugitzen arituen taldeak jakin duenez, bankuak finantzaketa osoaren abala ari zaizkie eskatzen erraustegia egin nahi duten enpresei. Alegia, edozein gauza gertatzen dela ere diru hori %100ean itzuliko diola eraikuntza enpresak. Hori finantzaketan aurrez ikusi gabea da.

GHK SAU desegiteko beste motibo bat: Arrazionalizazio Legea

2013an Espainian Montoro ministroak ateratako Arrazionalizazio Legea aplikatuz gero, azken hiru urtetako emaitzak negatibo izatea ere itxiera arrazoi bat da. Lege hori 2013ko abenduaren 1ean atera zen eta bazuen salbuespen bat, elkarte merkantila izan edo ez, eta administrazioa izaera zutenei aplikatzen zioten aipatutako legea. 2013an legea atera zenean, GHK elkarte merkantil gisa zegoen erregistratuta eta beraz, ez zitzaion lege hori aplikatzen. Baina 2015eko abuztuan, Espainiako ministerioak Europako irizpide berriak

aplikatuz, GHK SAU-ri administrazio izaera eman dio eta beraz, lege honen arabera itxiera arrazoi dira azken hiru urteetako emaitza negatiboak (ikus urteko kontuen koadroa). GHK-ko bazkideek aukera dute batzarrean sozietatea ixtea eskatzeko, beraz.

GHK SAU ixten bada zer?

GHK SAU milioi bakarrekoko kapitala duen sozietate anonimo bat izanik, zaila da sinistea bankuek 2011ko mailegu eta swapk handiak sinatuko zituztenik, horiekin batera kontsurtzioa lotzen zuen "konpromiso kontratua" sinatu ez balitz. Sozietateak kiebra eginez gero beren dirua bermatuko duena lotu nahi izan zuten, maileguekin batera beste kontratu bat ere sinatuta. Kontratu horretan bankuek estu hartu nahi izan zuten administrazio publikoa, beren dirua arriskuan ez jartzeko. Gure iturriaren arabera, "hain estu hartu zuten, kontratu horretako hainbat baldintza estuek kontratu hori nuloa bilakatzeko arrisku nabarmena dagoela".

Hau honela, administrazioek (Gipuzkoako Foru Aldundiak eta udalek) zor horri aurre egin beharko lioketen edo ez, eta bakoitzak jarri beharrekoa zenbatekoa den, eztabaida epaitegietan bukatuko litzateke, ezinbestean.

Gainera, esleitzeke dauden erraustegiaren lanen pleguetan kudeatzaile ezarrita dagoenez GHK SAU, plegu berri batzuk beharko lirateke, erraustegia egitekotan. ■

Artikulu hau eta beste asko itzultzen ditugu ingelesera. Euskal Herriko berriak nazioartean Euskal Herritik zabal ditzagun. Artikulu hau argia.eus/english helbidean aurkituko duzu.

ZURE ETXERA ETA BIZKOR!



13€

Etxea



34€

RUPA ORDORIKA



16,70€

FRANCO HIL ZUTEN EGUNAK



19€

KARRIKIRI euskal denda. Xabier karrika 4. Iruñea

KARRIKIRI.eus

IRUÑEKO EUSKALDUNON TOPAGUNA





50€-tik gorako eskaerarekin opari hau zure etxean!

Jone Goirizelaia, EH Bilduko parlamentaria

“IÑIGO CABACASEN FAMILIAK IKUSI DU INSTRUKZIOA EZ DELA INPARTZIALA IZAN”

Arabako ALEAk antolaturik, SolasAlean saioa izan zen hil honen 11n, Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxean; ARGIArekin elkarlanean. Berriako Edurne Begiristain kazetariak eta artikulu honen egileak EH Bilduko parlamentari eta abokatu Jone Goirizelaia elkarrizketatu genuen. Publikoak ere galderak egin zituen, baita Iñaki Goirizelaia, Gemma Zabaleta eta Koikili Lertxundik ere. Solasaldia oparoa eta goxoa izan zen. Hona hemen, jasotakoaren mustra bat.



Mikel Asurmendi

@masurmendi

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

1990etik 2005era legebiltzarkidea izan zinen. Hamaika urte geroago itzuli zara Legebiltzarrera. Zein oroitzapen dituzu?

Gaztea nintzen eta emakume bakarra. Instituzio batean sartu nintzen lehen biderrez, beldur handiz sartu ere. Garai hartako egoera politikoa oso konplikatua zen, hainbat biolentzia espresio zeudelako. Ezker abertzaleko kideok egoerari irtenbide emateko lanean ari ginen, herri gisa dagozkigun eskubideak lortzeko herriari hitza eman beharra aldarrikatzen genuen. Askok ikasi nuen eta ez diot ikasteari laga. Orduko eta oraingo egoera ezberdinak dira, baina gure helburu politikoak ez dira aldatu: Euskal Herriak bere buruaren jabe izatea.

Zein da itzuli izanaren arrazoi nagusia?

Buruan duzuna ez duzu sekula albora uzten. Batzuetan lehenengo lerroan zaude, bestetuetan atzerago, baina beti lotura zuzena duzu lortu gura duzunarekin. Eta horri haxe gehitu behar diot: Arnaldo [Otegi] kartzelan zegoenean, sarritan joaten nintzen bisitaz. Egun batean, berriz ere Legebiltzarrera itzuliko ginela esaten genion elkarri. Besteak beste, lotura eta

erreferente politikoak ez galtzeko. Hau da, ezker abertzalean ari garenek, gure estrategiaren aldaketa eta politika egiteko moduak zergatik aldatu ditugun ongi azaltzeko jendeari, betiere helburu berberak lortzeko. Arnaldok bere izaera baikorra transmititzen dio ondoko jendeari. Dugun esperientziak eragina du politikan, eta unea iritsita, ezin nion ezetz esan.

Zein da Eusko Legebiltzarrean nabaritu duzun aldaketa garrantzitsua?

Legebiltzarkideen arteko harremana. Lehen, jende guztiek hitz egiten genuen baina ez modu naturalean. Inkomunikazio politikoa nabarmena zen. Egun, denekin ez dugu berdin hitz egiten, baina aldaketak izan dira. Hitz egitea funtsezkoa da, parlamentu hitzak dioenez hitz egiteko tokia delako. Horrek egoera areago aldatzea eta akordioak lortzea espero dut. Hala ere, aldi berean, parlamentari batzuek duela hogeituroko egoerara eraman nahi gaituzte. Adibidez, Borja Semperrek Espainiako Konstituzioari zin egitea eskatzea. Baina, non gaude? Semper gaztea da, ez da Carlos Urquijo. Beraz, badago zer aldatua.

Sorturen birfundazio prozesuaren ostean ezker abertzalea benetan birsortuko al da?

Guztion eskuetan dago hori lortzea. Sakon eztabaidatu ostean, “politika beste modu batez egin behar da eta jende guztiarekin gauza guztiak egiteko kontatu behar dela” ondorioztatu genuen. Horrek Sorturen egituraren aldaketak ekarri behar ditu, lan egiteko moduan aldaketak, baita bidez bide kanpoan geratu direnak ere integratzea. Prozesua horren saiakera da: zelan lan egin jendearekin auzoetan eta herrietan, zelan transmititu gure helburuak. Erabakitzeko modua landu behar dugu, hori ondo egiten badugu, ezker abertzalea gizarte osorako aukera politikoa ona izango da.

Bost urte bete dira Aieteko Adierazpenetik eta ETak jarduera armatua utzi zutenetik. Batzuen ustez, erabaki hori askoz lehenago heldu behar zen. Zure iritziz?

Ez dut uste eztabaida puntu horretan jarri behar dugunik. Puntua beste toki batean dago: gu politika egiten ari gara gizarteak aukera politiko berriak izan ditzan, Euskal Herria beste modu batean eraikitzeko. Analisisa egoera politikoaren



"Arnaldok bere izaera baikorra transmititzen dio ondoko jendeari eta, unea iritsita, ezin nion ezetzik esan Eusko Legebiltzarrera itzultzeari".

arabera egin behar dugu eta erabakiak horren arabera hartu, betiere, politika egokiena aurrera eramateko eta herriarrek beren eskubideen jabe izateko. Ezker abertzaleak Aieteko Adierazpena eman zedin asko lan egin zuen. Bere estrategia aldatu eta antolamenduen egitura aldatu behar zirela erabaki zuen, baita denok hori onartzea eta elkarrekin egitea ere. Erabaki funtsezkoa izan zen. Hausnarketak eta erabakiak ekarri gaituzte gauden tokira, ezker abertzaleak bere erabakiak hartu zituen eta ETAk bereak. Nik hor jarriko nuke inflexio puntua.

"Cabacas auzia"-ren abokatua zara. Oztipoz betetako bidea dela salatu duzu maiz. Bagenekien ez zela erraza izango, hasieratik ikusi genuen gertatua argitzea zaila izango zela. Normalean, Ertzaintzak kamerak daramatza horrelako gertaerata, bada, kasu honetan eraman zituzten, baina ez zituztela piztu diote. Kanean kamerak izaten dira, Kirruli Herriko Taberna aurrean ere bai, baina, gau hartan ez. Areago, justu beheago kamerak martxan ei zeuden. Normalean irudi horiek auzitara eramaten dira: ar-

mak, bala-zorroak eta pilotak ikertzen dira, bada, kasu honetan hori ez da egin. Ertzaintzaren diligentziak zabaltzen dira, bada kasu honetan horiek ere ez.

Ezkorra zara, beraz.

Dauzkagun bitartekoak geuk landutakoak dira, han egon zen jendearen lekukotasunak, bertakoek grabatu zituzten bideoak... Harrigarria da gero, fiskalak argipenak aurkitzeko prozedura bultzatu beharko luke. Kasuon fiskalak ez ditu diligentziak eskatu, ez ikerketarako proposamenak egin ere. Ordea, Ertzaintzaren defentsak esaten duenarekin egin du beti bat. Jaurlaritzak kasurako izendatutako abokatuak ez du ezer egin, egin duen bakarra akusazio partikularren eskariz egin du, eta oztopoak jarritz betiere: "Ezin da ezer egin, kasua sekretupean dagoelako".

Uneon sei pertsona daude inputatuta.

Baina horiek ez zuten beren kabuz jokatu, aginduz baizik. Aginduak Ugarteko delakoak eman zituen. Eskatu dugu bera inputatzea, hark deklaratzeko, baina epaileak dioenez, berak ez zuen ezer

esan, ez egin. Kontua da Ugartekok agindua eman zituela, hori grabatuta dago: "Zoazte Herrikora, hartu posizioak, sakabanatu jendea, sartu zaitezte duzuen guztiarekin". Nik uste, Ertzaintza ez epaitzea erabaki dutela. Badirudi barneetik laguntza dutela, epaileen ingurukoek komentatu digutenez, oso garbi dute beren iritzia: ez dute helegiterik onartuko, kasua artxibatuko dute. Inñigoren familiak instrukzioa ez dela inpartziala ikusi du. Gure ustez, datu eta elementu nahikoa dago epaiketa egiteko. Baina azken hitza dutenak ez dira horren alde. Gizarteak ez du hori ulertuko ez onartuko. Epaileen jarrerak ez luke bidea oztopatu beharko. Jaurlaritzak auzia aurrera joan dadin prest dagoela dio, baina...

Eusko Jaurlaritzaren jarrera zein izan da, zehatzago esanda?

Aurreko Jaurlaritzako Segurtasun Sailko buru Rodolfo Aresek ez zuen ezer bidali epaitegietara, polizia txostena izan ezik. Ez zuen ikerketa zabaltzeko, eta gainera Ertzaintzaren abokatuak Inñigo buruan kolpatu zuena ez zela pilota bat izan, baizik eta kezko lata bat izan zela

planteatu zuen hasieran. Forentseak ez zuen hori onartu eta orduan estrategia aldatu zuen. Ez dute funtsezko ezer egin, ohikoa besterik ez dute esan: istiluak egon zirela, pertsona batzuk kaputxaz ibili zirela... Inork ikusi ez zituen gertaerak sartu nahi zituzten beren estrategian. Oraingoek, berriz, "hori aurreko gobernua zegoenean gertatu zen", diote.

Justizia eta Espainia hitzek zer esanahi dute zuretzat?

Zentzugabekeria. Justiziak eta Espainiak ez dute bat egiten. Gauza bat da hitza eta beste bat tribunaletan izaten dena. Espainiako Entzutegi Nazionalako epaietan erabaki politikoak agerikoak dira. Lehenengo eta behin, ez dakigu zein den izendatutako tribunaletan, epaileak artifizialki izendatuak izaten dira helburu eta gauza konkretuetarako. Epaituen inkomunikazioa darabilte helburu horiek lortzeko, defentsako abokatuok ez dugu euren eskubideez hitz egiterik. Zoritxarrez, gaur egun ere egitura eta pertsona berak daude, beraz, hori ez bada aldatzen ez dago justizia egiterik.

Euskal Herriarekiko aldaketa izatea zaila da, antza.

Guk aldaketa gauzatu dadin justizia trantsizionala landu nahi dugu, baina ez dute onartzen. Estrasburgoko Auzitegitik torturari buruzko ebazpen asko etorri dira, auziak ez direla behar bezala bideratu diote, baina ez dute kasurik egin. Adibidez, Garzon epaileak Bateragune auzibideko inputatuak [Otegi, Jacinto, Zabaleta, Rodriguez eta Diaz Usabiaga] zigortuak izateko, ETA eta Batasuna egitura berekoak zirela argudiatu zuen. Urte batzuk pasa ondoren, judikaduratik kanpo dagoenean, Garzonek "hori ez



"Azaroaren 25ean, Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna da. Une egokia litzateke Ahotsak mugimendua berrabiatzeko"

"Zenbat manifestaziotan izan dira zaurituak, begiak galduak eta hildakoak? Rosa Zarra, esaterako. Kasu horiek babestuak eta estaliak izan dira, ez dira argitu"

zen egia, epaia ez zela horrelakoa izan behar" esan du. Hara, bera epailea izan zen! Zer justizia mota da hori?

Justizia Euskal Herriaren markoan, berriz, nola ikusten duzu?

Nola gerta eta zertaz ari garen arabera. Auzi batzuetan justizia antzean dago. Hemen ere, poliziak prestatu dituen txostenak onartu behar izan dira urte luzetan. Printzipioz, poliziaren eta herritarren hitzek balio bera izan behar lukete, baina tribunaletan ez da horrela izaten. Poliziarenak askoz pisu gehiago dauka, egoera soziopolitiko zehatz batean egon garelako, gizarte sektore batek eta alderdi batzuek babes politiko hori eman diotelako. "Cabacas auzia" ezaguna da, Iñigo hila delako. Baina, Euskal Herrian zenbat manifestaziotan izan dira zaurituak, begiak galduak eta hildakoak? Rosa Zarra, esaterako. Kasu horiek babestuak eta estaliak izan dira, ez dira argitu. Askotan, arerio politikoek "zergatik ez duzue injustizia hau edo

ITURRIETA
SAGARDOTEGIA

Uda garaian ere zabalik

ARRAGA AUZOA, 2 · ARAMAIO
☎ 945 44 53 85 / 685 72 15 93
jj.iturrieta@yahoo.es
iturrietasagardotegia.blogspot.com.es

Ipar Motor
gasteiz

08:00etatik 20:00ak arte,
etenik gabe

León kalea z/g · 01003 Gasteiz
☎ 945 25 38 94
www.iparmotor.com

emaize

CENTRO SEXOLÓGICO · SEXOLOGIA ZENTROA

Bueno Monreal 1, behea
01001 Gasteiz
☎ 945 265 896
www.emaize.com

Durangoko Azoka

ARGIAREN MAHAIAN DUGU HITZORDUA

Durangoko Azokara bazatoz, ARGIAren mahaian opari berezi bat duzu zain: Mozal Legeak ARGIAri jarri zion isunari erantzunez aurten atera dugun azala, poster bihurtuta. Horrelako erasoei aurre egiteko ARGIAren indarra jendea da. Horregatik, ARGIA-jende gehiago egitea eta bakoitzak ahal duen ekarpena egitea izango da aurten helburu nagusia. ARGIAren mahaian eskuratu ditzakezun liburu eta egutegien artean, aurten ere ez da saltsarik eta umorerik faltako. Pasa mahaitik eta esan ARGIAkoa zarela. Posterra emateko aitzakian, elkar ezagutzeko desiatzen gaude.



Estitxu Eizagirre Kerejeta
@eeizagirre

Azken bi urteetako Durangoko azoketan asko eta asko dira gu bezala ARGIAra gehitu direnak, eta aurten “harpidetza” eredu berritua eramango dugunez (hurongo asteko alean sakon azalduko dugu zertan datzan), are gehiago lortzea dugu esperantza eta premia. Misio horretan parte hartu nahi dugunok, badugu hutsik egin ezin duen plan sekretu

bat: Mundu hau hobetzeko egin dezakegun gauzarik onenetako bat ARGIAkoa egitea dela konbentzituko ditugu guztiak, 7 argudiorekin.

Gero eta ARGIA jende gehiago gara eta gero eta erreferentzialtasun handiagoa du ARGIAk egiten duen kazetaritzak, baina hori ez dugu emaitza ekonomikotan islatzea lortu, oraindik. Duran-



ARGIAkoa betidanik direnek eta egin berriek, denek eramango dugu Joseba Larratxeren irudiarekin egindako Mozal Legearen posterra opari.

goko Azokako salmentak ere laguntzen du komunikazio proiektua. Ea ARGIA jendearen gustuko argitalpenak egiten asmatu dugun (hemen dituzue aurkeztuta, banan bana). ■



BIZI BARATZEA

lazko urtean euskaraz gehien saldutako liburuaren IV. argitalpenean goaz. ARGIAko mahaian eskuratu ahalko duzu, Jakoba Errekondo egileak sinatuta.

Ezaugarriak: 173 orri, koloretan. Argazki eder eta diseinu berezia.

Prezioa: ARGIAkoontzat 19,5 euro eta gainerakoentzat 23 euro.



ALTZA PORRU

Euskal Herriko 8 komikilaririk onenetakoek istorio eta umorez ematen digute Jakoba Errekondoren jakintza. Baratzean hamaika gai aurkituko ditugu jorratzeko: euskara, sexua, krimena, politika...

Liburua egileek sinatuta eramateko aukera dugu Durangon, ARGIAren mahaian ariko baitira komikilariak.

Ezaugarriak: 101 orri, koloretan. Komikilari hauen iruditegia.

Prezioa: ARGIAkoontza 18 euro, gainerakoentzat 19,5 euro.



ILARGIAREN EGUTEGIA

Nekazaritzako gaiet lotua. Argazki deigarritz moldatua eta aurtan Pello Zabalaen testuekin osatua. Hilabetero ilargiaren posizioaren berri ematen du eta egutegi biodinamikoaren arabera, eguneroko joera. Hileko lan nagusiak laburbilduta azaltzen ditu.

Ezaugarriak: Orri bakoitzak hilabete osoa bistaritzen du. 33x24 zentimetrokoa.

Prezioa: 5 euro.



EGUTEGIA

Zenbat etxetan hasten dugu eguna ARGIAren egutegiari orria kendu eta aurre eta atzeak irakurriz? 2017ko honek adimena lantzeko amua jarriko digu egunero buruketa eta galderekin, eta memoria berrituko, efemerideekin.

Ezaugarriak:

Formato txikia (7x11,5 zentimetro), mahaian edo horman jartzeko egokia. 365 orri.

Prezioa: 9 euro.

AGENDA

Zain gaituzu sarrera nagusitik sartuta, eskuinetara (ez zaizu ARGIA-koon mahaia oharkabea pasako):

Bertan egongo gara, egunero, ARGIAko langileak, kazetariak, Jakoba Errekondo, komikilariak...

ARGIA "harpidetza" eredu berriaren aurkezpena:

Abenduaren 3an, larunbata, 16:00etan aurkezpenen Areto Nagusian.

Altza Porru komiki liburuaren aurkezpena:

Abenduaren 3an, larunbata, 16:30ean aurkezpenen Areto Nagusian. Jakoba Errekondo, Antton Olariaga, Asisko, "mattin" Martiarena, Ainara Azpiazu "Axi", Joseba Larratxe, Unai Iturriaga, Unai Gaztelumendi eta Zaldieroa.

Ilargiaren egutegiaren aurkezpena:

Abenduaren 5ean, astelehena, 17:00etan, aurkezpenen Areto Nagusian. Jakoba Errekondo eta Pello Zabala.



EGUTEGIA ZINTZILIKATZEKO OHOLA

Egutegiarentzat neurritan egindako arte lana, horman zintzilikatzeko prestatua da goena. Etxea apaintzeko edo oparitzeko, elegante. Ohola erosita, aurtengo egutegia doan eramango duzu.

Ezaugarriak: Haritzegina eta eskuz landua. 19x31 zentrimetrokoak. **Prezioa:** 50 euro (eta egutegia opari).

Gasteizko gurasoak transmisioaz

ETXEKO ALTXORRA ESKOLAN GALDUKO OTE DUTE?

Gasteizko Udalaren eskariari erantzunez, Kultur Kabia enpresak *Vitoria-Gasteizko gurasoekin euskararen transmisioaz eginiko ikerketa kualitatiboaren ondorio txostena* ondu zuen. Bikote euskaldunak, erdaldunak, mistoak eta etorkinak elkarrizketatuta, lehen eskuko informazioa biltzea eta haiek transmisioaren garrantziaz jabetzea zen helburua.



Miel A. Elustondo

ARGAZKIAK: ZALDI ERO

Hiru eztabaida talde eratu zituzten, bost-zazpi kidez osatuak. Taldeetako batean, euskaldunak ziren guraso biak; bigarrenean, gurasoetarik bat zen euskaraduna; hirugarrenean, euskararik ez zekien gurasoetako batek ere. Sakoneko elkarrizketetan, bi guraso etorkinekin mintzatu ziren ikerlariak, gaztelaniaz bi kasuetan ere, magrebtarra zen bata, latinoamerikarra bestea.

Gurasoen hautuak

Guraso euskaldunei dagokienez, ikerketak zalantzarik gabe erakusten du talde honetakoek garrantzia ematen diotela transmisioari, kontziente dira gaiaren muntaz. Esaterako, inportantea iruditzen zaie euskara beren seme-alaben ama hizkuntza izatea eta, orobat, haiek D ereduan eskolatzea. Gurasoon iritziko, “Gasteizko egoera soziolinguistikoak txarrera baldintzatzen du euren seme-alaben euskara gaitasuna, eta erabiltzeko ohitura”. Are gehiago dio txostenak: “Modu negatiboan bizi dute haurren eskolaldia: ama hizkuntza euskara ez duten haurrekin elkartzeak gaztelaniarekiko joera handiagoa ekarri die, eta ondorioz, euskararekikoa apaltzea”. Gurasook, bistan da, erabat konbentzitututa daude gaztelania batere zailtasunik gabe ikasiko dutela, inguru erdaldunaren indarraren eraginez, eta ez dutela eragozpenik izango, inoiz, kanpoko uni-

bertsitate batera ikasten joaten badira ere, ordu arteko bizialdian euskara hutsen ikasita ere.

Guraso erdaldunak osatutako taldeetan, euskararekiko jarrera positiboa dute denek. Are gehiago, denek egin dute, inoiz, euskaraz ikasteko saioen bat edo beste, eta ahal duten neurrian dakiten apurra erabiltzeko ahalegina egin behar dutelakoan dira. Euskaraz hitz egiteko gai ez diren guraso erdaldun hauek motibazio afektiboa dute nagusi, txostenean esaten denez, “identitateari lotutako arazoak aipatu dituzte eta, afektibitatearen bigarren zentzu batean bada ere, eurek ez dutena seme-alabei emateko nahia ere agertu dute. Kulturaren ezinbesteko osagai modura ikusten dute”.

Eskolatzeari dagokionez, eredu euskaldunari garrantzia emanda ere, etxetik ikastetxera duten distantzia ere eskola aukeratzeko faktore dute. Seme-alabek euskaraz ondo ikasiko dute, ez gaztelaniaren maila berean, behar bada, baina bai “euskara erabiltzea borondatearen baitako faktoretzat hartzeko modukoa izateraino”.

Bikote mistoetan, euskaldunek euskaraz egiten diete seme-alabei. Alabaina, gaztelania da etxeko hizkuntza nagusia: bikotekideen artean ez ezik, baita familiako gainerako senideak tartean direnean ere, nahiz eta bi joera ageri

diren: “Alde batetik, modu kontziente eta koherentean jokatzeko duten euskarari eusten diote, nahiz eta aurrean kide erdaldunak izan; bestetik, gainerako kideak berbaldiaz jabetzea lehenesten dutenak ditugu”. Kide euskaldunek seme-alabei euskaraz egiteak, euskara zeharo arrotz duten senide erdaldunen errealtatean, euskarak sarrera izatea dakar.

Talde honetako gurasoek garrantzia handia ematen diote ama hizkuntzari, hizkuntzen arteko gaitasuna berdintze aldera, hain zuzen, euskara ama hizkuntzatzat daukatenek errazago eutsiko baitiote bi hizkuntzen arteko orekari. Bikote mistoetako kide gehienek gaztelania dute ama hizkuntza, eta “ilusioa”, “poza”, “harrotasuna” eta gisako sentimenduak bizi dituztela diote seme-alabak euskaraz aditzen dituztenean.

Azkenik, guraso etorkinekin izandako elkarrizketa bietan ageri da euskararekin ez dutela denbora luzez harremana izan. Batak beharrezkotzat jotzen du euskara; motibazio instrumentala gabe, kulturala lehenesten du. Diskriminazioa ere bizi izan du, eta alde horretatik, euskaraz jakitea ezinbestekoa iruditzen zaio komunitatean integartzeko. Honek ere harrotasuna sentitzen du seme-alabak euskaraz entzuten dituztenean. “Bigarren etorkinak eskolako andereñoaren bitartez izan zuen eus-



kararekiko lehen harremana. Emaizta akademikoak ditu lehen kezka, eta garrantzi handia ematen dio euskarari". Motibazio instrumentala da bigarren etorkinarena. Era berean, garrantzizkotzat du eskola-orduz kanpoko ekintzak euskaraz izatea.

Ondorio nagusi zenbait

Guraso euskaldunei dagokienez, "berebiziko garrantzia hartzen du gurasoak eredu linguistiko aktibo izateak, euskarazko aisialdia ahalbidetzeak edota etxean haurrak adinean gora egin ahala, euskara erabiltzen jarraitzeak". Txostengileek guraso hauek Gasteizko egoera erdaldunaren nagusitasunaren aurrean bizi duten etsipenari aurre egiteko, honako mezua zuzentzen diete: "Egoera txikiak aldatuta egoera handia aldatuko da". Gurasoek haurren lehenengo urteetan hasitako bideari jarraipena emateko ardura dutenez, "haiei ahalik eta ingurunerik euskaldunena -denboraz eta espazioz-, ahalbidetzen saiatu beharko lukete. Etxetik jasotako euskarari dagokionez, eskolaldia atzerapentzat bizi dute gurasoek, eta txostenaren egileek, berriz, interpretazio horrek aktibatzen dituen, edo etsipenera eramaten, galdetzen dute, eta horretaz gogoeta egin beharra azpimarratzen dute.

Guraso erdaldunei dagokienez, "aitortu, errekonozitu eta eskertu" egin

beharko litzaieke euskararekiko erakusten duten desiragatik, euskaraz jakin nahiko luketelako, eta zuzen edo zeharka ahalegina egin dutelako. Horrek, hala ere, ez du konformatzea esan nahi: "Guraso erdaldunek asko egin dute, baina asko egin dezakete oraindik ere". Hala, ber, eskolak berak bakarrik haurra euskaldunduko duen ustea kendu beharko lukete gurasoek burutik, eta haurra txikia denean gurasoek bizi duten euskararekiko motibazioa -"lilura"-, denboran iraunarazi. "Guraso izan aurretik motibazio eta sentsibilizazio lana areagotu beharko litzateke, eta gurasoen euskaragaitasuna heltzen ez den eremuetera heldu, familiatik kanpoko eremuen bitartez", guraso hauek euskararekiko duten jarrera positiboan eta motibazio kulturallean oinarrituz, alegia.

Bikote mistoen kasuan, kide erdaldunaren errealitatea nolabait euskalduntzen da. Helduleku bat izan liteke, transmisioan aurrerapauso praktikoak egiteko. Senide erdaldunak tartean direnean ere, euskara erabiltzea komeni da, horrek kide erdaldunarengan sentimendu positiboak sortzen dituelako: "Horrela jokatzek, guraso euskalduna seme-alabentzako erreferente linguistiko egokia izatea ekar lezake". Bide horretan, "ahal dudanarekin euskaraz egiten dut, ahal den guztietan" eskema birsortuko genuke.

GURASOEN BIZIPENAK

Guraso euskaldunak dio: "Ikastolan ikasi nuen euskaraz, gurasoak erdaldunak baititut. Bitxia da, ikastolan euskaraz ikasten nuen, baina gaztelaniaz hitz egiten nuen, natural-natural. Institutu garaia eta gero, ikasketak gaztelaniaz egiten hasi nintzenean, egoera irauli eta lagunartean euskaraz hitz egiten hasi ginen. Horrelako asko ikusi dut Gasteizen. Ikastolan euskaraz ikasiak, baina gero euskaldundutako jendea".

Erdalduna: "Ni Madrilgoa naiz, 26 urte nituela etorri nintzen Gasteiza lanera, baina 33 urterekin hasi zen nire euskararen mundua, lehenengo umea izan genuenean. Ordu arte ez nuen euskaraz inoiz aditu, umea izan genuenean konturatu nintzen euskara ere hor zegoela, hizkuntza bat, bizirik. Alabak euskarazko haurtzaindegira eraman genituen eta, harrezkero, ikastola da nire euskarazko munduaren ardatza".

Bikote misto bateko gurasoa: "Herri euskaldunetik nator, eta Gasteiza etorri nintzenean, banuen kezka, umeek gaztelaniaz hitz egingo ote zidaten. Neure burua akabatzea izango zatekeen. Horixe izan zen Gasteiza etorri eta ibili nuen kezkarik handiena".

Guraso etorkinei dagokienez, komunitatean integratzea dutenez kezkarik handienetakoa, integrazioa osorik lortzekotan, euskaraz jakitea lagungarri ez ezik beharrezkoa ere badela azpimarratzea komeniko litzateke. Sorterritik irten eta beste herrialde batera joanda, gehienek beste hizkuntza bat ikasi beharra izan dute, eta, ikasi eta gero, modu positiboan bizi ohi dute egoera, hizkuntz aniztasuna aberasgarri baitzaie. "Eurek beharrak eraginda egin zuten, baina seme-alabentzat askoz naturalagoa izan liteke prozesu hori".

Guraso etorkinetako batek esandakoa dugu egirik biribilena: "Aukera baneuka, hogeitaz hizkuntza ere jakitea gustatuko litzaidake: euskara, arabiera, frantsesa, gaztelania... diren eta ez diren hizkuntza guztiak. Oso ona da mundu guztiarentzat". ■

Lardaskan, beroarena kentzen



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Udazkenak badu gatz bizigarri berezi bat. Nire sasoi honetako saltsa ederki nahasten duen broia-makila izan ohi dira urri-azaroak. Eguraldiak ikaragarri harrotzen du egoera hau. Bazen garaia eta etorri da freskura; hezetasunak bere onera dakar gure paisaia, eta hotz apurrak udako harropuzkeriei beroarena kentzen die. Hai-zeen borrokek bakoitzaren txokoa non dagoen gogorarazten dute, "pasa txokora" esanez bezala... Horrela, gainezka jartzen dira zoko, bazter eta ipular, hosto, zurikin, azal, adar eta abarreko gorpu, gorpuzkin, hilotz eta hiliki metak balira bezala.

Zikulu-saltsa ederra; lan ugaritan lardaskan, gustukoa zait oraingo hori. Uz-taren emanak bete ditu mandio eta ganbara, eta oraindik zer jasoa ere bada: kiwi, kuia, mizpira, gorde-sagar, arto...

Basoan ere lana besterik ez da. Inaurkinetarako garoak (*Pteridium aquilinum*) etxeratzeko garaia bukatzen... Iraila edo garoila tokitan da. Aurrea dantzatzan berandu jarraitzen duenak su-egurra ere etxeratu dezake: pagoa (*Fagus sylvatica*) eta beste. Hostailari eusten dioten zuhaitz eta zuhaixkak landatzeko sasoi da. Baita, soiltzen direlako, neguan sartzearekin landatuko ditugunentzako zuloak egitekoa ere.

Etxe inguruan burua joateko adina hauste izango da. Hotzari aurre egite-



Lan ugari egiteko sasoi da udazken sasoi hau. Baba (*Vicia faba*) ereiteko, adibidez.

VINAYARAJ-CC BY

ko gai ez diren landareei babesa eman beharko diegu. Ontzietan irauten dutenak aterpera, teilatu hegal azpira edo hormaren kontrara mugitu. Lurrean bizi direnei berezko babesa eraiki beharko diegu: txapitulatxo bat, edo gerria eta adar nagusiak oihal-zapiz bildu eta lotu (zitrikoek bereziki maite dute...). Baratzean egin beharrekoaz zertzelada batzuk: laboreak erein, baita baba (*Vicia faba*) eta ilarra (*Pisum sativum*) ere, lan-

datu tipulatxa (*Allium cepa* var. *agregatum*), arabarba (*Rheum rhabarbarum*), marrubia (*Fragaria* sp.) eta udaberrian loratuko diren idi-bihotza (*Tulipa* sp.), mugeta (*Convallaria majalis*), nartzisoa (*Narcissus* sp.)...

Izan ere, lanak egiteko aldarteari "azaroa" deitzen zaio, sasona edo sasoa. Nemesio Etxanizek idatzi zuen: "Udazkenean azaroa ta udaberrian baratzea loretan". ■



Bizkaiko bertsozari txapelketa 2016



#bbt16 Finalurrekoa

BASAURI

Artunduaga polikiroldegian

Azaroaren 27an, 17:30ean

Aitor Bizkarra Ruiz, Beñat Ugartetxea Ostolaza, Imanol Uribe Albizuri, Joseba Artza Zubillaga, Oñintza Enbeita Maguregi, Xabier Gallettebeitia Abaroa

Gai-jartzaileak: Begoñe Olabarria Astobiza

Antolatzaileak



Babesleak



Loguntzaileak



www.bertsosale.eus/bizkaikotxapelketa

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA, ALTZA PORRUZ:

“Izan al dugu inoiz porruak ereiten dakien lehendakariarik?”



Garazi Zabaleta

@tirikitran

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Baratzegintzak eta politikak bat egin dute zure komikian. Lotura surrealista xamarra.

Jakobari entzun nion behin baratzeaz ulertzen ez duena ez dela euskaldun kultua. Zer pentsatua eman zidan horrek. Halako batean Urkulluren mitin baten zati bat bota zuten ETBn, eta bere eskuetan fijasatu nintzen. Ikusten zen esku haiek gehiago probatu zutela ogi masaren leuna eta gozoa eta ez baratzearen lakarra eta zikina. Aitzur gutxi hartutakoak zirela, alegia. Eta nirekiko pentsatu nuen: “Honek ez dik baratzerik izango. Euskaldun kultua izango ote duk?”. Hortik tiraka atera zen istorioa.

Zer egin behar litzateke porruak noiz ereiten diren ez dakien lehendakariarekin?

Izan al dugu porruak noiz ereiten diren dakien lehendakariarik? Patxi López agian...? Lehenbizi Fraisoroko eskolara bidaliko nuke igande arratsaldetan, ikas ditzala lehen sektorearen oinarritzko nozioak. Gero Gasteizko Ogeta pilotalekura eraman dezatela hirutik hirura sikiera sakatzen asmatu arte (honek ez dauka baratzearekin zerikusirik, baina beti estimatzen da lehendakaria saka-tzaile ona izatea). Eta azkenik, kargua-ren zina egin dezala *Bizi Baratzea* liburuaren aurrean zutunik.

Entzun dut lanpostu publikoetarako Baratzeko Gaitasun Agiria eskatzen hastea pentsatzen ari direla...

Ez naiz agiri horren bate-re zalea. Irakurri ditut eskakizunak eta galderak buruz

ikasteko ahalmena daukanak erraz gainditzeko moduan planteatuta dago. Seguru, makina bat baratzezale zahar eta ganorazko geldituko direla atarikoan kanpoan. Nik ziurtagiri bat eskatuko nuke. Hiru tomate uzta oparo bildu dituela azken hiru udatan erakusten duena. Sulfatorik gabe, noski.

Ba al duzu baratzerik? Eta gauza bakoitza noiz erein buruz dakizu, edo amonari galdetzen diozu?

Ez dago ondo nik esatea, baina, Donostialdeako ederrena. Garaiko tomate eta piper berdeak oraintxe ari zaizkit bukatzen. Gainontzean denetik daukat: Zerbak, porruak, kalabaza ugari, tipula, eskarola... baita alberjinia ere (txiki samarrak aurtan).

Zer du tomatetik Unai Gaztelumendi Arandiak?

Baratzezale on eta txarraren arteko diferentzia tomateak markatzen du. Baleko letxugak edozeini ateratzen zaizkio. Tomateak beste dedikazio bat eskatzen du, beste atentzio bat, beste taktu bat. Lasai utzi behar zaio, makilari gehiegi estutu gabe, utzi arnasa hartzen lasai. Horretantxe naiz ni tomate xamarra. Argi tomate onak dituen baratzezalearekin, zerbait badaki. ■

EUSKAL HERRI OSOKO AZOKA BEREZIAK

Azaroak 25: Getxo

Artisau azoka. Areetan.

Azaroak 27: Usurbil

Erle Eguna. Herriko plazan.

Azaroak 27: Hernani

Pablo Lasa Eskulan Azoka. Gudarien Plazan.

Azaroak 27: Ormaiztegi

Odolki Eguna. Herriko plazan.

Azaroak 27: Bilbo

Nekazaritza Azoka. Errekaldeberrin.

Azaroak 27: Zaldibar

Nekazaritza Azoka. Herrian zehar.

Azaroak 30: Eibar

San Andres Azoka. Errebalan.

Azaroak 30: Azkoitia

San Andres Azoka. Herriko plazan.

Azoken agenda osoa noiznahi ikusteko:

www.bizibaratzea.eus

ZURE HERRIKO AZOKAREN BERRI EMAN

edukia@bizibaratzea.eus

www.bizibaratzea.eus webgunean bertan, oso modu errazean.



TREBIÑU
sagardotegia

Ipar Kalea · Askartza
(Gasteiztik 20 minutura)
☎ 945 24 48 52 / 657 736 599

www.trebinu.com

GURE GAIK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT



Aste honetako nabarmendua

'ALTZA PORRU' LIBURUA

4

Baratzeak badu umorerik: 'Altza Porru' liburua

Baratzearen sekretu guztiak deskubritu dizkigu Jakoba Errekondok *Bizi Baratzea* liburu arrakastatsuan. Lantzen dugun lurrarekiko ikuskera aldarazi digu gehienoi, eta beste askori jakinmina eta grina piztu. Orain, zaleak eta irakurleak zain zeuden bigarren lana kaleratu du ARGIAk: *Bizi Baratzea*, *Altza Porru*. Aurreko liburua bezala, hau ere mugari izateko bokazioz erditu dugu, eta osagai nagusi bat izango du: umorea. Euskal Herrian aski ezagunak zaizkigun zortzi marrazkilari elkartu eta lanean jarri ditugu, Jakoba Errekondorekin eman eta hartuan: Antton Olariaga, Asisko, Unai Iturriaga, Ainara Azpiazu, "Mattin" Martiarena, Joseba Larratxe, Unai Gaztelumendi eta Zaldieroa. Irudi eta komikien bidez, baratzea mundu askotarako atari izan daitekeela erakutsiko digute liburu honetan. Hitzekin jolas egin, probokatu eta irribarrea sortarazteko erraztasuna da, bestalde, liburuaren dohainetako bat: "Sortzen dituzten istorioak ongarrizteko erabiltzen dituzten hitzek eta pitzek txoratuta naukate", aitortu du Jakoba Errekondok. ARGIAkoen artean hiru liburu zozketatuko ditugu azaroan zehar.



Eragile hau hobeto ezagutzeko:



ARGIA

www.argia.eus/denda
Tel.: 943 371 545

#kazetaritzaindependentea
#euskara
#ekonomiasoziala
#feminismoa
#elikaduraburujabetza

Hilabeteko honetako sariak

1



Tribial Feminista mahai jolasa
2 joko

2



Simaurren konpostajea
2 liburu

3



Skakeitan taldearen abenduak
Seko Durangoko kontzerturako
5 sarrera bikoitz

4



Altza Porru liburua
3 liburu

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.

ASTEKARIA ZABALTZEN DUEN ARGAZKI HANDIA

Agentzia multinazionalen beharrik gabe



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria


Ez al zaitu sekula inpresionatu astekari-ko lehen orrietan agertzen den orri-biko argazkiren batek, irakurle? Ziur naiz baietz. Bada, gehiago inpresionatuko zaitu –agian jakingo duzu eta pentsatzen ariko zara ez dizudala ezer berririk kontatzen, baina seguruena uste baino jende gutxiagok ezagutuko du datua– jakiteak argazkilari independenteek harapatutako irudiak direla guztiak; hau da, iturria ez dela betiko EFE edo Reuters bezalako agentzia multinazionala, irudi eta informazio salerosketarekin aberasten ari dena.

Aldizkaria berriren zenetik 48. alea izango da, eta berrogeita zortzi argazkiak independenteak izatea lortu da. Apustu sendoa egin da, noski. Kasu askotan ez da erraza izaten pil-pilean dagoen gaiaren argazki egokia bilatzea. Gainera, ARGIA eman zaion formatuan bi orriko irudiak berak du hartzen protagonismo guztia, eta ia testurik gabe argazkiak berak hitz egin behar du gaiak; hori da helburua.

Euskal Herriko kontuek ari garenean errazagoa izaten da normalean argazki polit bat topatzea, grafikoki adierazgarria dena eta gaian sartzen lagunduko diguna. Gaia bera ondo kontrolatzeaz gain, gertuko argazkilari gehiago ere identifikatuta izan ohi ditugu eta ma-

teriala eskuragarriago egoten da. Konplikazioak nazioarteko kontuek hasten garenean suertatzen dira sarriago. Zaila izaten da askotan agentzien filtratutako pasa gabeko irudiak eskuratzea. Baina ez da ezinezkoa, eta ARGIA argazki hauekin egindako apustuarekin demostratzen ari zaigu posible dela beste bide batzuetatik grafikoki indartsuak diren euskarriak lortzea. Zenbait kasutan izerdi asko botata eskuratutako irudiak direla? Bai, noski. Errazagoa litzatekeela irudia agentzietatik jasotzea? Ziurrenik.

Baina bide berriak irekitzen ahalegindu eta bere fruituak ematen ikustea ederra da, ederra den bezala egiten ari garena kontatu eta plazaratzeko aukera izatea. ■



ARGIAren alde

OIARDO KIROLDEGIA (USURBIL)
ABENDUAK 11,
IGANDEA

Saio bakarra: **11:30ean**

Sarrerak:

Aurretik 7 euro

Egun berean 8 euro (12 hilabete arteko haurrak doan)

**Lan
berriaren
aurkezpen
emanaldia**

Eskuratu zure sarrera:

☎ 943 37 15 45

sustapena@argia.eus

Antolatzailea

ARGIAren Adiskideak
Usurbilgo Taldea

ARGIA

IRUÑEKO EMAKUMEZKO APEZPIKUA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Iruñea, 1082. Antso V.a Ramirez (1043-1094) Iruñeko erregeak hiriko apezpikua aldatzea erabaki zuen. Ordura arte bere anaia Gartziak zeukan goi-kargua eta Antso V.ak –edo Antso I.a Aragoikoak, hango errege ere baitzen– beste senitarteko baten esku utzi zuen gotzaingoa. Horraino ezer harrigarrik ez; garai hartan errege-erreginek apezpikuak izendatzeko eskumena zeukaten eta nepotismoa ere, jakina, ez zen kontu berria. Baina erregeak, lege kanonikoaren aurka, emakume bat izendatu zuen Iruñeko apezpiku: Antsa arreba. Urte hartako diploma batean idatzita jaso zenez: *in sede episcopale Iruniensis comitissa domna Sancia in commendatione*.

Antsa Ramirez 1045ean jaio zen eta 1097an hil. 18 urte zituela Ermengol II.a Urgeleko kondearekin ezkontarazi zuten, familiaren aliantza estrategiak medio. Senarra handik bi urtera hil zen, Zaragozako taifako Al-Muqtadir erregearen aurka borrokan. 20 urterekin alargunduta, senarraren titulua hartu eta Huescako Santa Cruz de la Serós emakumeen monasterioaren ardura hartu zuen. Antso nebaren gortera hurbilduz joan zen eta 1071. urte ingurutik aurrera bere izena nebarenaren ondoan agertzen da dokumentazio ofizialean; gerora, iloba Pedro I.a Aragoikoarenaren agirietan ere



OSCAR GARCÉS OLASAGARRE

Antsa kondesaren sarkofagoa, Jacako beneditarren komentuan. Eskuineko eszenan, erdialdean dagoen emakumea Antsa bera dela uste dute adituek, artazi-aulki batean eserita dagoelako eta eserleku horiek garai hartan errege familiarekiko lotura adierazten zutelako.

Antsa aipatzen jarraituko zuten. Konde-saren itzal handiaren seinale da, baita ere, erregeak hainbat monasterioen eta haiei lotutako lurraldeen ardura haren esku utzi izana: Santa Cruz de Serós bera, San Urbez 1074tik, San Pedro de Siresa 1082tik, Atares 1083tik...

Esan bezala, 1082an Antso V.ak Iruñeko gotzain izendatu zuen Antsa, ziurrenik Gartzia anaiarekin zituen desadostasunen ondorioz. Gartzia apezpikua garai hartan Iruñean praktikatzen zen erritu mozarabearen aldekoa zen. Aldiz, Antso, arreba bezala, erromatar errituaren babesle sutsua zen, 1068an Aita Santuari bisita egin zionetik. Hala, erritu moza-

bea ordezkatzeko jarri zuen Antsa postuan. Alegia, aita santuarekiko leialtasunak generoak baino pisu handiagoa izan zuen une hartan.

Antsa Ramirezek hurrengo urtean, 1083an, utzi zuen gotzaingoa, ezagutzen ez diren arrazoiengatik. Baina San Pedro de Siresako gizonezkoen monasterioaren ardurari eutsi zion 1095 arte, lege kanonikoari muzin eginez.

2015eko urtarrilean Elizabeth Jane Holden eliza anglikanoko gotzain izendatu zuten. Historiako lehen emakumezko apezpikutzat jotzen dute askok, duela ia mila urte, askoz gertuago, Antsak eliza katolikoan titulu bera izan zuela ahaztuta. ■



Amelia Earhart, Nikumaroro uhartean naufragoa

Amelia Earhart abiazioko aitzindaria 1937an galdu zen Ozeano Barean, munduari bira emateko ahaleginean. Handik urte batzuetara Nikumaroro uhartean giza eskeleto bat aurkitu zuten, baina Earhartena ez zela esan zuten, besteak beste humero luzeek gizonezko batena zela adierazten omen zutelako. Orain, TIGHAR arkeologia aeronautikoko fundazioak hezur horien ikerlana berraz-

tertu –hezurak eurak aspaldi galdu baitziren– eta emakume kaukasoar batena, beraz, Earhartena izan daitezkeela jakinarazi du. Beso luzeek, hipotesia baztertu ez ezik, indartu egiten dute, hegazkinlaria gorputz adar luzekoa baitzen, ezkerreko argazkian antzeman daitekeenez. Gainera, kremlera zati bat, botoiak eta Ameliaren neurriko zapata bat ere aurkitu zituzten uhartean. ■

Euskararen Nazioarteko Eguna

Bilbon
euskaraz



Gu ere bertsotan
Bertsokorak eskolatan



Galdeketaun
Gazte lehiaketa



Ikusi eta ikasi
Ikuskizun zirkuitua



Zer dara Bilbo?
Euskara erabiltzeko ekimenak



Ikusten duguna gara
D ereduaren alde




Euskararen dimentsioa
Sentiberatze kanpaina



Bilboko euskaltegiak




Mikoleta
Eskolarteko ipuin lehiaketa




Biribilko
Komertzioan ere euskaraz



Harrapazank
Gazteentzako aukera



nahidudalako.eus
Ikasketak euskeraz jarraitu



Bertan Bilbo
hiri burua eta euskera



Zinema euskeraz

B

Marga Íñiguez

“Sormena zerbait biologikoa da”

Salamanca Bérjar herrian jaio zen Marga Íñiguez, duela 72 urte, eta horietatik 50 daramatza sormenari buruzko hitzaldi, tailer eta aholkulari lanetan, nekaezin. Aurretik, telebistan hamarkada batez aritu zen (tartean, *La Bola de Cristal* saio iraultzailean). Euskal Herrian izana da behin baino gehiagotan; guk Ozaetan harrapatu dugu, Araban, Garaion sorgingunean.



Mikel Garcia Idiakez
@mikelgi

Zure hitzaldiek lelo garbia dute: “Sormena, premiazko eskubidea”.

Sormenaren garapen eta sustapenean lan egiten dudanetik, beti esan dut sormena eskubide bat dela, eta premiazkoa dela. Pertsonak eta herriek gure singulartasun eta nortasun propioa izateko dugun eskubidea da, gure estilo propioa transformatzeko eta aurrera egiteko. Eta premiazkoa da, prekarietatearen, sufrimenduaren eta planeta suntsitzen ari garen garaiotan soluzio berriak aurkitu behar ditugulako, arazo berriak sortu gabe. Eta soluzio horiek aurkitu daitezke pertsonok dugun imajinatze eta bide berriak irudikatzeko gaitasunagatik. Batzuetan, ez dago 180 graduko bira eman beharrik, 10 graduko birak aldaketa handia sor dezake. Industria Aroa izan genuen, ondoren Informazioaren Aroa eta Jakintzaren Aroa. Orain, Imajinazioaren Aroaren txanda da. Zuk imajinatzen duzuna ez da nik imajinatzen dudana, eta ondasun hori izango da abiapuntua.

Sormena artera eta kulturara mugatzen dugu maiz.

Sormena globala da eta maila asko ditu. Erabakitzea, soluzio baten alde egitea eskatzen du sormenak eta eguneroko ari gara

erabakiak hartzen. Batzuek besteek baino garatuago dute, baina sormena zerbait biologikoa da, gizakiak sortzaileak gara eta etengabekoa da gure bilakara. Erabakitzea, imajinatzea, bestelako errealitateak amestu eta egia bihurtzea, norberaren zigilua jartzea... da sormena. Eta arlo batzuetarako joera handiagoa izan dezakegun arren, guk geuk esparru guztietara zabaldu beharko genuke gure indar sortzailea, gainera sakonean dena dagoelako lotuta, adibidez musika matematikarekin, koloreekin, hitzarekin... Ezer ez da isolatua eta itxia.

Denok baldin bagara talentudunak, potentzial handia dago hor...

Sormen indibidualaz gain, adimen kolektiboa dago, 2+2 ez direlako 4, emaitza izan daiteke 40 edo 100.000, sortzen diren sinergia eta harremanengatik. Besteekin hartu-emanen ari zarenean, kultura berria sortzen zoaz eta gizartea bera da sortzaile. Jendearen talentua eta parte-hartzea sustatzea da gakoa, eta halako esperientzien bidez auzoa eta komunitatea berpiztea eta elkartzea lortu duten adibideak badira. Hemen, Euskal Herrian, ekintza eta auzolana dituzue oinarri; bide horretan oso urrutira iritsi zai-



“Teknikak baino inportanteagoak dira atmosferak, sortzen lagunduko duten giro eta espazioak ahalbidetzea”.

tezkete. Ideia batzuk pentsatuz datozkigu, beste batzuk sentituz (emozioekin lotura handia baitute ideiek), eta beste hainbat eginez edo hartu-emanen. Euskal gizarteak batik bat eginez funtzionatzen du; horregatik, hainbatetan ideiak ateratzeko euskaldunak bildu eta pentsatzen jartzen direla ikusten dudanean, eredu anglosaxoiak errepikatuz, esaten diet teknika sortzaileak bertako metodologiara egokitu behar direla (ekintza eta auzolana).

Triste da, hutsegitea eta inmoralia, ditugun gaitasun horiek guztiak gehiago ez garatzea, herri baten Barne Produktu ez Gordina herritarren talentua baita. Mundu guztiak du talentua, denok jaiotzen gara zerbait oso ondo egiteko, zerbait berria sortzeko gaitasunarekin, eta hori alferrik galtzen da. 50 urte pasatxo daramatzat arlo honetan lanean, eta oraindik ez dut ezagutu ahalmen sortzailerik ez duen inor. Bai ezagutu ditut mesprextatuak izan diren pertsonak, euren burua autozentsuratu eta gutxietsi dutenak, barruan daramaten guztia komunikatzen eta adierazten jakin ez dutenak... baina talentu gabekorik ez. Arazoa da ez dela sormen hori sustatzen, ez hezkuntzan, ez hedabideen bidez, ezta horretarako espazio aproposak sortuz ere.



Jende sortzailea mespretxatzen eta gu-txiesten da, hortaz?

Historiak berak erakutsi digu sortzaile handiak askotan ez direla aintzat hartuak izan, denbora bat pasa arte, hainbatetan sortzailea bera hil ostean. Aldaketari beldurra diogu, barneratuta ditugun parametro batzuen barruan mugitzea oso eroso delako eta sortzeak esan nahi du dena auzitan jartzea, zure mundua kolokan jartzea eta arrisku bat hartzea, eta maiz nahiago dugu dena oso markatuta izan, horrela ez dugulako ahaleginik egin behar eta segurtasuna ematen digulako. Maitatua izateko, gainerakoek egiten dutena egiten dugu maiz, “arraroa” edo “ezberdina” ez izateko. Eta txikitatik gertatzen da hori, zoritxarrez. Horregatik, beharrezkoa da norbera izateko aukera emango duten espazioak eta giroak errazte, aniztasuna eta elkarren arteko interakzioa bultzatuko dutenak.

“Sortzea gure mundua kolokan jartzea da”.

Aurrerapenak ematen direnean, arau bat apurtu duzu, beste bat sortzeko. Kaosaren teoria litzateke: dena oso ordenatuta dagoenean, azkenerako hilda bezala daude gauzak; kaosa eragin behar da, zerbait berria sortzeko. Naturak ere hala funtzio-

natzen du. Arauak urratzea oso inportantea da, sortzeko klabeetako bat desikastea delako, zaharkituta eta iraungita geratu zaizkizun kontzeptu eta jarreretatik askatzea. Horrek ez du esan nahi tradizioari uko egin behar zaionik, aurreko belaunaldiak pentsatu eta sortutako ondarea da tradizioa, aurrera egiteko behar dugun oinarria, baina hari kateatuta geratu gabe.

Nola garatu sormena?

Niretzat, teknikak baino inportanteagoak dira atmosferak, sortzen lagunduko duten giro eta espazioak ahalbidetzea. Jendearengan sinestea da gakoa, ulertzea parean duzuna berdingabea dela eta aukera emanez gero ekarpen handiak egin ditzakeela. Norberaren kasuan ere berdin, gure buruarengan konfiantza izan behar dugu, kontzientzia hartu behar dugu zenbateraino eman dezakegun. Hortik aurrera, pasioa da motorra, ekiteko indarra emango diguna. Lehen esan bezala, arrisku bat den heinean ausardia ere behar da. Eta adorea, kemenak, ziurrenik kritikatuak izango garelako, edo huts egin eta berriz ekin beharko diogulako. Imajinazioa, jakina, funtsezkoa da, beste errealitate eta mundu posible batzuk ikusteko; denak balio du imajinazioan,

“Erabakitzea, bestelako errealitateak amestea, norberaren zigilua jartzea... da sormena. Imajinazioaren Aroaren txanda da”

“Eredu neoliberalak sormen kontzeptua kontrolatzen saiatzen den unetik gure buruari galdetu beharko genioke: sormena zertarako?”

“Zeure kartzelaria izan zaitezke, oso autokritikoa zarelako, zure eskema zurrunetan sartzen ez dena baztertzeagatik, ingurukoek espero dutena egiten duzulako...”

utopiak barne. Mahai bat irudikatzeko eskatu eta inork ez du mahai bera irudikatuko, ñabardura ezberdinak izango ditu norberarenak. Azkenik, saiatua izatea ere garrantzitsua da, tematia, eta ez maiz esfortzuaz ari, esfortzu hitza ez zaidalako batere gustatzen, zigor kutsua du.

Enpresa munduan modako hitza da “berrikuntza”, eta hainbatetan badirudi haren izenean edozerk balio duela.

Gizarteak aurrera egiteko beharrezkoa da berrikuntza, kontua da berrikuntza hori nola planteatzen den, eta egia da sarri berrikuntza berrikuntzagatik baino ez dela egiten, aurretik sormena landu gabe, eta berrikuntzaren hazia sormena da. Sormena lantzen duen taldea, bilatu gabe ere berrikuntza izango da beti. Arazoa da, merkatuan salgarria den kontzeptua izanik, aditu homologazioa duen hainbat iruzur-gilek negozioa egiten duela, berrikuntzari buruzko tailer txatxuak antolatuz. Oso ikuspegi anglosaxoiarekin, gainera.

EUSKAL KULTURA ABERASTEKO SORGINGUNEA

Sortzeko gakoa giroa, atmosfera bada, gure sen sortzailea pizteko Garaion leku ezin hobea dela azpimarratu du Íñiguez-zek. "Ikuspegi bikaina duen gunea da: natura eta artea nola lotzen duten, sortu nahi duen edonor etorri ahal izatea, adina edo arloa dena delakoa izanda ere. Egun batzuk daramatzat hemen eta jende oso interesgarria ibili da hara-hona: musika taldea osatzeko elkartu nahi duten neska batzuk, ikuskizun bat antolatu nahi duen mutil kuadrilla bat, esperientziak partekatu dituzten feministak... Sukalderaino sartzen da jendea, etxean baleude bezala, eta horrek asko balio du, hartu-emanerako eta sinergietarako sekulako aukera ematen du".

Garaion sorgingunea Ozaetako base-rri handi batean dago, Araban, paraje ederrean. "Sorkuntza espazio bat da, sortzaileei zuzendua, haien sorkuntza lanak, ikerketak eta esperientziazio berrien bi- zipenak bultzatzeko; eta horren bidez, komunitatean sormen gaitasuna pizteko, euskaraz, euskal kulturaren imaginarioa aberasteko", diote proiektukideek. Amaia Gabilondo, Julia Lopez eta Ainara Arrietak gidatzen dute egitasmoa.

Goiko irudian, Marga Íñiguez eta Amaia Gabilondo, solasean. Behean, Garaionen eraiki duten arto-labirintoan barna.



Egungo gizarte neoliberallean, sormena helburu ekonomizistekin erabili eta ber- rau debalutzeko arriskua al dago?

Bai, gainera boladaka doa. Hain juxtu, sormen interesatua modan egon zen duela urte batzuk. Azken finean, eredu neoliberal kontzeptua kontrolatzen saiatzen den momentutik gure buruari galdetu behar- ko genioke: sormena zertarako? Sormen- ak ez du zertan ongiari lotuta joan, tor- turatzaile bat oso sortzailea izan daiteke egiteko horretan, imajinazio handia izan dezake besteak sufriarazten. Ikuspegi eti- koa kontuan hartzea komeni da.

TVE telebista katean aholkulari pedagogi- ko aritu zinenean, besteak beste *La Bola de Cristal* saio apurtzailean hartu zenuen parte. Saioko zuzendari Lolo Ricok ARGIA n esan zigun askatasuna zela saioaren mezua, nor- bere kabuz pentsaraztea. Sormenak berak zerikusi handia du askatasunarekin.

Bai, eta ez bakarrik askatasunez pentsa- tzearekin, gure singularitasuna pentsatze- ra, sentitzera eta egitera dagoelako lotuta. Are gehiago, pentsamendua beti ez da zu- rea, beste batek pentsatu ahal izan du zure orde, baina sentimendua zurea da, guztiz.

Barne-askatasunarekin du zerikusia sormenak: kartzelan preso egon zaitez- ke eta sortzen jarraitu, eta kalean egon baina zeure buruaren kartzelaria izan zaitezke, oso autokritikoa zarela, zure eskema zurruntan sartzen ez diren ideiak baztertzen dituzulako, inguru- koek zuregandik espero dutena egiten duzulako...

Egungo telebistak, norberaren askatasu- na eta singularitasuna bultzatzen al du?

Amorru handia ematen dit ikusteak ja- kintza handitzeko, mundu berriak eza- gutzeko eta gizarte berriak sortzeko hain baliagarria izan daitekeen tresna nola erabiltzen den jendea tenteltzeko.

Eta hezkuntza sistema nola ikusten duzu? Izan ere, badiirudi txikitan sormena gehiago lantzen dela, marrazketa eta eskulan bidez, ipuinak asmatuz, jolastuz... eta adin batetik aurrera hori guztia eten egiten dela.

Ez pentsa, batzuetan txiki-txikitatik za- puzten dute hauraren irudimena, eta al- derantziz, koxkorxeagoen irakasle zoraga- rriak ezagutu ditut, ikasleengan sinesten dutenak eta haien sormena loratzeko es- trategiak garatzen dituztenak. Arazoa da sarri hezkuntza sistema bera dela lanketa hori mugatzen duena, Lehen eta Bigarren hezkuntzan hainbestekoa baita burokra- zia eta lan gehigarria, irakasleek ez du- tela denborarik benetan eskaini behar diotenari eskaintzeko, ikaslearen proba- katzaileria izateari, haren talentua ateratzeko bide-lagun izateari. Hezkuntza eredu kastratzailea da, planifikatua, denak bide eta eduki berak aldi berean jorratzera bultzatzen dituen, irudimena, autonoma, norberaren sormena lehenetsi orde. Irakasleentzat, aholku bakarra: maitatu gabe ezin da irakatsi, hezkuntza maitasun ekintza bat delako eta ikaslea ez duzula- ko hezik, ikasle hori maite ez baduzu, harengatik konfiantzarik ez baduzu. Hizki larriz diot hau.

Haurrez ari gara, baina adinekoen kasuan ere, uste duzu euren sormena kimatzera jotzen dugula, adin batetik aurrera agor- tuta balute bezala?


Hori egitea sekulako galera da, espe- rientzia metatuz goazelako, eta bizi- tza osoan sormena lantzen joan denak, zenbat eta zaharrago izan orduan eta garatuago izango ditu gaitasunak. Adi- nekoek sortzen segitzen duten seinale, Espainian abiatu duten plataforma: Sortzen Jarraitzeko Eskubidearen Alde. Jubilatua bazara, ezin duzu egile esku- biderik kobratu liburu bat, pelikula bat edo beste zernahi egiteagatik, eta hor- ren kontra ari dira borrokan. Ez baita logikoa, akzioak baldin badituzu, edo ondasun higiezinak edo auskalo, or- duan bai, pentsioa eta gainerakoa ere kobratu ahal izatea, baina sortze lanar- en kasuan ez. ■

Datu Pertsonalen Babesa - LOPD

Legedira egokitzeko prozesua
(euskaraz, pertsonalizatua)



© 943 453 588 · www.sigacus.com



Bixente Ameztoi

IZENBURURIK GABE (1984)

Olíoa, 81x151 cm



Xabier Gantzarain

www.argia.eus/artea

Azaroan bete dira 15 urte hil zenetik, 70 beteko zituzkeen aurten Bixente Ameztoi Olasagastik (Donostia, 1946ko urtarrilaren 30a–Villabona, 2001eko azaroaren 6a). Umea zela hasi zen mar-gotzen, besterik egiterik ez zitzaiola sekula burutik pasa esan izan zuen, eta 14 urterekin parte hartu zuen erakusketa batean lehen aldiz. Sariak azkar iritsi zitzaizkion, baita merkatuaren presioa ere, antza: konturatzeko atzetik zeukan jendea lan eske, berak aitortu zuenez, eta horrek gaixotu egiten zuen. Epe, presa, kate guztiak hautsi eta bere barne

erritmoari jarraituz ondu zituen harrezkero bere lanak.

Zeruko Argia-rentzat azalak egin zituen 70eko hamarkadaren bukaera aldera, batzuk polemika sortu zutenak gainera; trantsizio garai hartan oso aktiboa izan zen, *Euskadi Sioux* aldizkarian ere ibili zen, esate baterako. Bere lan guztietan gaia bera da: gizakiaren eta naturaren arteko harremana, bere bariante guztietan, betiere surrealismo ukitu batekin. Erretratuak dira seguru asko bere lanik ezagunenak, baina beti ari da paisaia pintatzen, in-

guratzen duen mundua, barruan duen mundua.

1984ko paisaia hau berezia da oso, ez baitago, bere lanik gehienetan ez bezala, giza arrastorik batere. Igeldo aldetik jarri da artista Donostiara begira, postaletan-eta erabat erabili den begirada berbera hartuta, baina ikuslearen begiak mendian behera itsasora, hondartzara, lurrera egin orduko hautemango duenez, hiria falta da koadroan; ez bide, ez etxe, ez jende, ez dakigu gizakiak paraje hauek zapaldu aurretikoa den irudia, edo naturak beretzat hartu duen inoiz Donostia izan zena. ■


KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Etorkizunaren argi-ilunak



Amaia Alvarez Uribe



Biharko oroitzapenak

MAYI PELOT

Maiatz, 1985

Mayi Pelot urriaren 6an hil zen eta kritika honekin omenaldi xume bat egin nahi diot. Zientzia fikzioa landu zuen ezagutzen dizkiongun bi lanetan, ohikoa ez zena bere garaian: Xabier Mendigurenek egin zion kritikan dioenez “azpimarratzekoa da, itxura denez Mayi Pelot dugula zientzia fikzioa lantzen duen euskal idazle bakarra”.

Itxaro Bordak eta Josu Landak 1986an *Susa* aldizkarirako egin zioten elkarrizketan ipuin hauek idazteko erabili zituen iturriak aitortu zituen: Bradburyren ametsen erabilera eta mundu berriak asmatzea, Asimoven inibertso eta zibilizazioen sormena eta egia esatea, Farmer-en izakien sormena eta sexu, arima eta erlijio gaiei buruz hitz egiteko ausardia, P. Dick-en ero eta umoretsu jokatzeko aukera, edo M. Demuth-en hitzak sortzeko eta erotismoa tratatzeko modua. Hala ere, errealitatetik eta mitologiatik ere edango du, eta gertaera sozio-politiko-ekonomikoak kontuan izango ditu eta zientzia fikzioak kritika soziala egiteko ematen duen aukera aprobetxatuko du.

Egiturari dagokionez sei ipuin hauek hiru multzotan banatu daitezke: *Miren*, *Boga Boga*, *Feed Back* eta *Telelabyrinth* istorio beraren alderdi desberdinak dira. Bertan, 2050. urtean III. Mundu Gerraren osteko mundua marraztuko digu. Sei herrialdetan banatuta dago Lurra eta tentsio geopolitikoak daude haien artean. Egileak testua idatzi zuenean Ayatollah Jomeiniren botere-hartzea eta gerra nuklearraren beldurra ziren kezka nagusietako bi. Gaurkotasunik ez dute galdu gaiok M. Houellebecq-en *Sumisioa* lanaren argitalpen polemikoa edo Ipar Koreak

aurten egin dituen proba nuklearrak gogoan hartzen baditugu.

Plist Plasten ordea, 3520. urtean kokatzen gaitu bitan banatuta dagoen planeta bat asmatuz eta protagonista iheslariaren atzetik doan gizon burusoil eta robot hiltzaileekin. *Harremana* ipuinean aldiz, mitologia nordikoetatik eta Wagnerren Siegfried operatik Wotan eta Erda hartu eta alegia bat sortzen du bizitza, heriotza, gerra, bakea, maitasuna eta sexua erdigunean jarrita.

Ikuspegi askotatik begira dakioke lan honi, ekologistatik lurraren hondamendiarekin; feministatik zenbait emakumeren arteko sareen bidez, klasea eta nazioarekin lotutakoak jende-taldearen arteko borroka aztertzen badugu. Mikel Antzak egin zion kritikan topa daiteke “ez dela errealitatetik ihes egiteko” genero literarioa eta liburu, gogoeta egiteko gonbidapena baizik.

Gatazka eta heriotza oso presente egon arren, itxaropenerako atea zabaldu nahi du Pelotek, etorkizunean, belaunaldi berriek, hobeto egiten jakingo dutelako memoria gordez eta mundu berri bat eraikiz. ■



Mayi Pelot idazlea.
Talença (Okzitania),
1947 - Miarritze, 2016.

» TELEGRAMA

Azaroaren 26an, 20:00etan, Nashvilleko (AEBetako Tennessee) **William Tyler** eta El-goibarko **Amorante** musikariek Donostiako Imanol Larzabal aretoan (Lugaritz) joko dute *STOP* Abenduaren 2an, 20:00etan, Arrangoitzeko **Anje Duhaldek** eta Altzürüküko **Niko Etxartek** kontzertua eskainiko dute Bilboko BBK-n *STOP* **Havtajá Euska-di-Israel** kultur elkarteak antolatuta, *Holokaustoari buruzko heziketaren 13 zutabe nagusiak* erakusketa zabalik dago Gasteizko Judimendi Gizarte Etxean, azaroaren 17tik 30era bitartean, goizeko 10:00etatik gaueko 21:00etara *STOP*

» DISKOA

Ñabardurak



Iker Barandiaran



Dramatik-thlon
ESTRICALLA

Stop Control Antirecords, 2016

"Dramatik-thlon" diskoa
Estricalla taldearen seigarren lana da.



Estricalla taldeak seigarren lana du honakoa. El Corazón del Sapo eta gerora Kuraia eta Matxura taldeetan aritutako Fer Apoak Kantabriako Kloakao taldeko kideekin egindako apustuak irmo jarraitzen du, ezbairik gabe; eta ez dago etenik, ezin da egon etsaiak dirauen bitartean.

Euskal Herriko eta, oro har, Espainia-ko Estatuko hardcore-punkari izaera eta izatea eman dio taldeak, amorru biziz eta iraultza pedagogiaz, iraganeko jakinduria eta gauzak egiteko modua berreskuratuz eta berrasmatur.

Lorpen handiak egin dituzte orain arte, muturreko estilo hauen zaleei –zorioneakoak gu!– aire freskoa eskainiz, ondo sinetsita eta ahaleginduta zuk zeuk egizu ekimen xumeen bitartez ahotsik gabekoen jakinduria luzatuz, kontzientziak iratzartuz eta, ze karajo, barruan duguna ateraraziz.

Disko honek, beste guztiek bezala, diseinu, zita, bibliografia eta detaile oso zainduen gordeleku eta adierazle, ertz ugari ditu. Bat-batekotasunari eta oihu egiteko urgentiari arnasa eman eta gehiago hausnartu dute. Ñabardura gehiago eskaini dizkiete kantuei eta tenpoak ere

tarteka aldatu dira. Baina ez dute, ez, indarra eta amorrazioa galdu.

Aterkills gitarra rockeroak dituen zatilazko hardcore-punka da, taldearen eguneko gosaria. *Krossrock*-k gehiago du urgentziazko rocka metalarekin, doinu pisutsuekin eta ia espiralekoekin batzetik. Eta *Nik-pizar-nik* piezak Life But How To Live it, RKL eta rock borrokariena ezkontzeko gai da. Hortik aurrera, doinuak eta estrukturak biderkatu egiten dira: *MTZTT-438*-k bere baitan hartzen ditu psikodeliaren uza, rock gogorra, Anestesiaren tamainako pisua eta Kuraia edo Eskandinabiako laka ia orkestrala den entsalada lortuz; eta Bullet Lavolta (AEB) talde errebindikatuaren abeslari Yukkier Gipek parte hartzen duen *X-izpian* hardcore-punk azeleratua beldurrezko pisuzko psikodelia ipuina bihurtzen da ezinbestez. Metala ere presente dago lanean, eta izenari men eginda *Karniborous tb* iragarlean thrash-metal astuna eta abiadura handiko melodia batzea lortu dute. Bestalde, ohikoak baino kantu luzeagoak idatzi dituzten honetan, diskoaren soinuaren erantzule garrantzitsua den Mikel Kazalisek (Fidelenia estudioa) 40 segundo pasatxotan zapatilla gabe utzi gaituen *XXXprinter* hautsa erditu du taldearentzat. Estricallaren marka diren osagaietara itzulita, *Lurrunkor*-en abiadura eta amorrazioak arnasa moztu ditu; eta azkenik Abio handiari teklaturkin hegan egiten utzi diote *Sokamothor* malenkoniatsu eta erritmikoan, zein *Zal-diko maldi-k.o* epilogon. ■



'Karta astrala'
dokumentaletik
hartutako
fotograma.

Arima bikiaren bila

KARTA ASTRALA DOKUMENTALA



Mikel Garcia Idiakez
@mikelgi

Zuzendari eta gidoilariak: Maite Bidarte eta Koldo García. Euskal Herria, 27 min.
Azaroaren 19an, Donostiako Trueba zinemetan aurkeztua

Maitek krisi bat izan du. Zer hobeto, gertatu zaiona ulertzeko, krisi bera bizi izan duenarekin hitz egitea baino? Karta astralen arabera, Maiteren leku berean une bertsuan jaio zenak antzeko zikloak bizi izan ditu eta nortasun berdintsua du gainera. Haren bila abiatuko da Maite, erantzunen premian.

Gustuko ditugu bilaketan oinarritutako dokumentalak: Oskar Alegriaren *Emak Bakia Baita* filmak, Miarritzeko etxe misterioitsu bat aurkitzea helburu, liluratu egin gintuen; Josu Martinezen *Gure Sor Lekua*ren *Bila* lanean, pelikula bat berreskuratzeko piskizek harra-patu gintuzten; eta *Karta astrala* opera primak ez digu hutsik egin. Generoaren klabeak bere egiten ditu filmak: ikuslea konplize egiten duen bilaketa prozesua; bideko oztopo, ezuste eta bihurtuak;

bilatzen duena aurkituko ote duen jakin-minez istorioak mantentzen duen tentsioa... Eta freskoa eta naturala da emaitza, baita protagonista bera ere ("aktore lanetan seriozki hasteko erran didate!", diosku Maite Bidartek). Bidean lagundu dioten pertsonak ere kamerarik egongo ez bailitzan jardun dira kontu-kontari (aipatzekoa, karta astralean aditu den emakumearenera bisita egiten dueneko). Nabari da konfiantza giroan errodatu dutela, bilatze lanetan izandako frustrazioak frustrazio disfrutatu egin dutela, eta hori guztia transmititzen diote ikusleari.

Bilaketa prozesu hauetan, bidea bera da interesgarriena, baina bihurtu-tan (eta muntaia mahaian) katramilatu gabe, helburua oso argi du uneoro dokumentalak, eta konturatzerako iritsiko




gara helmugara, ordu erdiko metrajera heldu gabe.

Larrotxenetik Lekeitiara

Beste ezaugarri batzuen artean, "filmaren originaltasuna" baloratu zuten Lekeitioko Euskal Zine Bileran, eta pelikula onenaren eta gidoi onenaren saria lortu zituen, amateur mailan. Azaroaren 19an Donostiako Trueban aurkeztu zuten eta jasotako harrera beroa eskertu dute zuzendariak. Hemen-dik aurrera ere egingo du bidea dokumentalak. Donostiako Larrotxenen, ikus-entzunezko ikastaro batean jaio zen Koldo García eta Maite Bidarteren *Karta astrala*. Lehenengo lan honekin "hagitz-hagitz pozik" daudela esan digu Bidartek, "batez ere jendeak gustura ikusten duelako". ■

Hitz gezidunak

Gaia: Hestebeteak



Sudokua

Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako
zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3ko
koadro bakoitzean errepikatu gabe.

	2		6				
		4			1		5
	1		7				8
				9		2	5
2			1		6		9
	4	8		3			
6					8		9
4			9			7	
					5		1

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. "Usteak erdi...".
2. Sekzioa, departamentua.
3. Estuki, hertsiki.
4. Elkartu aditzaren infinitiboa.
5. Aihena.

Ebazpenak

7	8	9	5	2	7	6	8	9	3	4	1
4	5	2	9	1	3	7	8	6			
4	5	2	9	1	3	7	8	6			
7	8	9	5	2	7	6	8	9	3	4	1

S. Laira.

3. Tinkl. 4. Elkar.

I. USTEL, Z. Salla.

:CC

5x5:

[illegible]

Widia Lariviere. Autoktonoa eta harro



JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Kolonizazio eta asimilazio basatiaren eraginez, Kanada eta Quebecoko herri autoktonoak krisi identitario sakonean direla deitoratzen du Widia Larivierek, aita quebecarra eta ama algonkindarra duen gazteak. Hala eta guztiz ere, azken urte hauetan harrotasun sentimendua berriro loratzen ari dela dio: “Egia da kolonizazioagatik eta arrazakeriagatik laidoztaturiko nortasunari bestela begiratzen hasi direla anitz”. Baikorki begiratzen dio etorkizunari Larivierek.

“Kanada eta Quebecoko autoktonoon errealitateaz jakineza da nagusi”



Jenofa Berhokoirigoin

Historia isildua

“1820tik 1996ra, autoktonoen umeak lapurtu eta barnetegietan ezarri zituzten, ‘haurraren zegoen indioa hiltzeko’. Orotara 150.000 haur zituzten familiatarik eraman, asimilazio bortizera behartuz. Nerabe, eskolan nintzela, barnetegi horien berri ez nuela ohartzeak inarrosi ninduen. Gure historiaren pasarte horretan sakondu nahi nuen. Nuen interesa ikusirik, amaxi ere hortik pasa zela aitortu zidan amak. Nire militantziaren abiatze emozionala une horretan kausitu zen”.

Quebec mailako Idle No More mugimenduaren sortzaileetan zara.

2012 urteko udazkenean sortu zuten mugimendua lau emakumek, hiru autoktonok eta kanadar batek. Arbasoengandik ditugun eskubideak urratzea eta gure lurraldeak kaltetzea zekartzaten lege proiektu batzuk oztopatzeko antolatu ginen. Mugimendua laster hedatu zen Kanada guztira. Zapalkuntza eta kolonizazio historia luze batek eragin kexu gorriaren gorpuztea da Idle No More.

Emakumeak dira lehen lerroan. Kolonialismoa patriarkatuarekin eskuz esku doalako marka dea?

Egia da emakumeok ginela mugimenduaren buruan; izan ekintza antolatzaile ala bozeramaile, beti emakumeok ginen lehen lerroan. Naturalki egin zen. Arrazoa argia da: kolonizazioak betidanik emakumeak hunki ditu gehiago; autoktono izateaz gain emakume izateagatik erronka gehiago ditugu gainditzeko. Patriarkatuarekin errimaturik da kolonizazioa. Emakumeok ez gara

behar den heinean ordezkatuak instantzia politikoetan, ez egitura federaletan ezta autoktonoenetan ere, kolonizazioa aitzin zeukaten boterea galdurik dutelako. Horregatik gara egitura politiko kolonialetarik kanpo aktibo, galdutako boterea berreskuratu nahi dugulako.

Kolonizazio horren kontzientzia zein heinetakoa da autoktono ez direnen artean?

Quebecarren partetik ez ezagutze anitzi aurre egin behar izan dut, gure kultura eta errealitateen jakineza da nagusi. Gurea ez da eskolan irakatsia, historia kurtsoetan izugarri gutxi aipatzen da. Aurreiritzi arrazistak eta diskriminazioak ondorioztatzen ditu ezjakintasun horrek. Baina uste dut, hala ere, egoera hobetuz doala, besteak beste Idle No More mugimenduak kontzientzia hartzea ondorioztatu zuelako. Autoktonoon aferei buruzko irekidura handiagoa nabari da, errealitatea hobeto ezagutzeko nahikeria bada. Hasiera eman zitzaion egoera berri bati. Autoktono eta ez-autoktonoen artean dauden



paretak hautsi nahi baldin baditugu, horren alde azkarki lan egiten segitu behar dugu.

Autoktono izatearen harrotasuna berpizteko tresna ere izan zen Idle No More.

Kolonizazioagatik eta arrazakeriagatik laidoztaturiko nortasunari bestela begiratzen hasi dira anitz. Bai, benetan harrotasun sentimendua berpizteko balio ukan zuen eta hori sekulakoa da. Harrotasuna eta norbere komunitatearen alde inplikatzeko desioa eragin zuen gazte anitzen baita. Adibidez, horren isla izan zen Cris populuko gazte batzuek Quebec iparretik Ottawa arte egin Nishiyuu martxa. Noski, aldarrikape-nak entzunarazteko egin zuten martxa, baina lanketa pertsonal identitario bat egiteko ere balio ukan zuen.

Gazteak autoktono izateaz harro direla erran zenezake?

Mailaz mailako aldaketa gertatzen ari da. Urte luzeetan ezertarako balio ez dugula eta desagertu behar dugula en-

tzun izana ez da eraginik gabekoa izan. Krisi identitarioan gara. Hori dela-eta, nortasunari buruzko galdeketa betean dira asko. Baina uste dut baikorki eta harrotasunez berreskuratu nahi dutela anitzek autoktono nortasuna. Identitate hori berriz definitzen ari gara. Garai bateko erregimenak ondorioztatu eraginak pairatu arren, gerorantz begira gaude. Modernitatean bizi gara, gure kultura eta hizkuntzak bestelakotzen gabiltza, beti sustraiak zainduz. Zinezko konfiantza badut gazterian, geroa gure eskuetan hartzeko gaitasuna dugulako.

Garai batean bezain begi-bistakoa ez izan arren, genozidio kulturala oraindik hor da.

Ez ditugu gure gurasoek eta aitona-amonek pairatu trauma bortitzak bizi izan, baina ondorioak jasaten ari gara. Barnetegien bidez egin genozidio kulturalaren eraginak pertsonalki bizi ditugu. Hizkuntza eta kulturaren transmisioa kolokan dago eta babesteko zein berpizteko behar gorria hor dugu.

Widia Lariviere (ezkerrean) Idle No More mugimenduaren mobilizazio batean parte hartzen. "Zapalkuntza eta kolonizazio historia luze batek eragin kexu gorriaren gorpuztea da Idle No More".

WIDIA LARIVIEREK UTZIA

Zein da zure iduriko urgentziazko desafioa?

Galdera ona da eta anitz daudela erran nezake. Autoktonoon autodeterminazio eskubidearen urraketa dugu arazoaren muinean, betidanik gobernuekiko harreman kolonialista, desorekatu eta paternalistan garelako. Autodeterminazio eskubide hori errespetatua ez deino, desberdintasun politikoak izanzen dira. Arlo sozialari begiratu gero, sendatze kolektiboan murgilduta gara. Bizi izandako historia beltz horretatik sendatze-ko denbora hartu behar dugu. Historia horri begiratu behar diogu zer garen ulertu nahi badugu, orainari eta geroari bizkar eman gabe. Quebecarrei eta kanadarrei ere ezagutarazi behar diegu gure historia, arrazismoak ezezagutzan dituelako sustraiak. ■



ARGIAk paso egin zuen Sarrionandiaren argazkia kaleratzeaz, “saltsa horretan ez sartzearren”

ARGIAk ere auke-
ra izan zuen euskal
hedabide askotan
(ia) aldi berean pu-
bliko egin den Jose-
ba Sarrionandiaren
elkarrizketa honez-
kero ospetsua argi-
taratzeko, baina uko
egin zuen, “liskarrak
saihesteko”. Aldizka-
riko Harreman Diplo-
matikoak eta Bake
Santua saileko ardu-
radunaren esanetan,
“aukera polita zen Sa-
rrirena ateratzea baina a ze gogo gutxi
halakoetan sartzea, aldi berean erloju-
ari eta beste ez dakit zenbat hedabideren
webguneei begira, gin tonic-a hartzeko
orduan gainera. Uf, utzi, utzi”.

Bestalde, Estitxu Eizagirre zuzenda-
riaren esanetan, “ez dakit zer pasatzen
den azkenaldi hontan Sarrionandiare-
kin! Urteko eskusiba guk emango dugu:
Sarrionandia non zegoen ez zekien bati
elkarrizketa”.



*Euskal kulturari buruzko jardunaldi oso sakon
batzuetan elkartu ziren Etxepare eta Sarriren
bideak, euskararen bizindar etnolinguistikoaz
hausnartzen ari zirela.*

*Berria-k eta Gara-k lurretako idaz-
leari eskainitako azalek oso erreakzio
positiboak eragin dituzte. “Hori bai
azal latza!” izan da komentariori zabal-
duena.*




Don't worry eta be happy

SAREAN ARRANTZATUA

Be water my friend



LAB sindikatua utziko du
Justin Bieberrek



Pepsikoleta



*Kontatzen
ez dena
ez da*

2016
2017

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

BizkaIdatz Txikia III

Haur eta Gazteen
Literatura Saria



2017ko otsailaren 17an amaituko da lanak jasotzeko epea
Oinarriak / Bases del concurso: www.bizkaia.eus/foruliburutegia
Plazo de recepción de los relatos finalizará el: 17 de febrero del 2017



Premio literario
Infantil y Juvenil
**BizkaIdatz
Txikia III**